



Artisauen Iana ikusgai

Arraza
autoktonoen
erakusketa
Ormaiztegin

Sydneyko joko
paraolimpiarren
gazi-gozoa

Irene
Aldasororentzat
Euskadi Saria



VAC
VAC



BERTAN^{S.L.}

EGUR BILTEGIA

VACSOL - WRR[®] TRATAMENDUA EGURRARENTZAT



OHOL ETA ALTZARIEN TRATAMENDUA

**PITZADURA,
PIPI eta
HEZETASUNAREN
AURKAKO
TRATAMENDU
FIDAGARRIA**

GOIERRIKO ODOLKIGILEAK

HESTEBETEA



"ORMAIZTEGI"
ODOLKIAK

Nekazaritza eta
Arrantza Sailak
baimendua

JESUS MARI DEBA

- Barazki eta arroz-odolkiak
- Mondejuak

Bereziak harategi eta
jaketxeetarako

Anduaga Industrialdea, 9
Zumalakarregi Plaza, z/g

☎ 943 72 17 10
☎ 943 88 26 59

EZKIO-ITSASO
ORMAIZTEGI



Arg.: Xabier Mujika

OIANGUREN HARATEGIA



- ✓ Odolki eta mondejuak
- ✓ Txorizo eta tripakiak
- ✓ Baserriko haragia

Gipuzkoa, 15

☎ 943 88 01 42

ORDIZIA

PELLO HARATEGIA

KALITATEKO
**EUSKAL
OKELA**

Otordu ona egiteko
okel eta odolki onak ezinbesteko

Mariaratz, 2 ☎ 943 88 80 11

BEASAIN



OIARBIDE HARATEGIA

Odolkiak eta bertako haragia


Elosegi, 52
Elosegi, 15

☎ 943 88 17 17
☎ 943 16 05 16

LAZKAO

Olano Harategia

KALITATEKO
**EUSKAL
OKELA**



Odolki eta
etxeko haragitan
berezitasuna

Andra Mari, 3

☎ 943 88 07 78

BEASAIN

IÑAKI ZUBELDIA




KALITATEKO
**EUSKAL
OKELA**

Bertako haragiak,
odolki, lukainka,
saltxitxa eta aurrez
prestatutako janariak

K. Nagusia, 14 ☎ 943 88 27 47

BEASAIN

J. MUJIKA Harategia



Nafarroa Etorb. 31 ☎ 943 88 04 88
BEASAIN

Nagusia, 16 ☎ 943 88 18 32
Gipuzkoa, z/g ☎ 943 88 08 78
Etxea ☎ 943 16 06 02

ORDIZIA

IÑAKI KANPOS AUTOZERBITZUA

KALITATEKO
**EUSKAL
OKELA**

- ✗ Bertako haragia
- ✗ Odolki, txorizo eta tripaki bereziak



Zumalakarregi, 4 ☎ 943 88 28 27 ORMAIZTEGI

INAZIO MUJIKA HARATEGIA



- Odolki eta mondejuak
- Txorizo eta tripakiak
- Baserriko haragia

Ordiziako odolki txapelketako irabazlea 1998an, 2.a 1999an eta 3.a 2000an

Urdaneta, 8

☎ 943 88 12 45

ORDIZIA

Non zer

7 KATE MOTZEAN: Amaia Argarate

8 AHOLKUA:
Kontsumitzaileen elkarte

9 Artisaualdia Ordizian

10-11: Juan Elgarresta abarkagilea

12-13: Arraza autoktonoen azoka Ormaiztegin.

14: Irene Aldasoro, Euskadi Saria.

15-23 KRONIKAK

MUTILOA 15: Urrezko ezteiak. **LAZKAO 15:** II. Gazte festa. **SEGURA**

16: Liburutegia.

ORDIZIA 17: Txupi etxean. **ORMAIZTEGI**

18: Euskal Herriko arraza autoktonoen erakusketa. **EZKIO-ITSASO**

18: Kultur astea. **LEGORRETA 19:** Kultur astea. **BEASAIN 21:** Udazken kulturala. **IDIAZABAL 22:**

Eguneko zentrua. **ZEGAMA**

23: San Martin azoka. **ZALDIBIA 23:** Ardiki

eguna.

24-25: AGENDA

26-27: DEBALDEKO IRAGARKIAK

28-29: KIROLAK:

Paraolimpiarrak

30: FOTO ZAHARRA: legorretarrak.



Azaroaren 4an Beasainen:

XVI. Odolki lehiaketa

Beasaingo San Martin plazan, 12etatik aurrera, azaroaren 4an, XVI. Odolki lehiaketa izango da, Beasaingo Odolkiaren Kofradiak antolatuta. Aurten astebete lehanago izango da, Zegamako San Martin azokarekin bat ez egiteagatik.

Goierriko, Tolosaldeko eta Urola garaiko harakinek lehiaketan parte hartzeko aukera izango dute. Bakoi-tzak 10 odolki aurkeztu beharko ditu.

Sukaldari ezagunek osatuko dute epaimahaia, Karlos Argiñano beasaindarra buru dela. Odolkiaren errege edo erregina izendatuko dute.

Saria bakarra izango da: 25.000 pezeta eta zeramikazko platera. Hori bai, irabazleak, otsailaren 5ean, Loinazko San Martin egunean egiten den Odolki Kofradiaren urteko bazkarirako odolkiak prestatu beharko ditu.

Odolki lehiaketaz gain, odolkia dastatzeko aukera ere izango dute herriarrek. Odolki pintxoak salgai izango dira plazan bertan, edaria lagun dela.

Egun hau hartzen ari den garrantzia dela eta, urtero postu gehiago etortzen dira, beraien produktuak saltzera. Beasaingo "Martintxoak" pastelxoak eta odolkiak ere salgai izango dira.

GOIERRITARRA HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea: Goierritarrak Kultur Elkarte

Dorre-etxea, 1 (Postetxe gainean) 124 posta-kutxa Ordizia Tfnoa: 943 88 96 12 Faxa: 943 88 27 19

E-mail: goierritarra@topagunea.com

Zuzendaria: Loinaz Agirre Maketazioa: Mikel Albisu Publizitatea: Argider Mujika Zenbaki honetako kronista eta kolaboratzaileak: Joseba Telleria, Aitor Calvillo, Xabier Urteaga, Nekane Altuna, Edurne Albizu, Aimar Maiz, Inko Mujika, Laida Oiarbide, Iñaki Ugalde, Aitziber Murua, Patxi Telleria eta EKA.

Azaleko argazkia: Mikel Albisu.

Fotokonposizio eta maketazioa: GOIERRITARRA. Inprimaketa: Gertu (Zubillaga 9, Oñati)

Tirada: 8.000 ale. SSN: 1132-0907 Lege gordailua: SS-926/89 Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



*Eusko Jaularitzako Kultura
Sailak, Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta GOIERRIKO
UDALEK diruz lagundutako
aldizkaria*

Ikaztegiak hilketa

1997ko urrian Ikaztegiak gasolindegian hildako Izaskun Larrauri legorretarra hiltzeaz akusatuta dauden hiru pertsona epaitzen hasi ziren urriaren 16an. Bi gizonetako eta emakumezko bat epaituko dituzte. Herri-epaimahaia osatu da epaiketa honetarako. 11 lagunek osatuko dute. Tiro egin zuenarentzat 26 urteko espetxe zigorra eskatu du fiskalak eta beste bientzat hamazazpina. Horrez gain, 15 milioi pezetako kalteordaina ere eskatu du hildakoaren familiarentzat.

Indarren inaugurazioa urriaren 27an

Beasaingo Indar enpresa urriaren 27an inauguratuko da. Enpresaren sorreraren 60. urteurrenarekin bat dator inaugurazioa. Jaieguna izango dute bertako langileek eta familiakoekin batera, lantoki berria ezagutzeko aukera izango dute.

Beasain-Durango

Eusko Jaurlaritzak zehaztu du hiru diputazioekin sinatutako hitzarmena. Era honetan, Beasain-Durango errepidea egiteko 3.000 milioi inguru bideratuko ditu Jaurlaritzak: 1.500 milioitik gora jarriko ditu Bergara Hegoekialdeko saihesbiderako; 1.360 milioi Ormaiztegi-Zumarraga tartearen finantzaketan laguntzeko. Zati honen lanei datorren urtean ekingo diete.

NAN-a Beasainen

Urriaren 26tik aurrera berriz ere Nortasun Agiria Beasaingo Udaltxean egiteko aukera izango da, goizeko 9,30etatik 1,15etara.

Beasaindar gazteak lanean Nikaragua eta El Salvadorren

Beasaingo Udaltxeko Ongizate sailak ematen dituen beka edo dirulaguntzei esker, bost beasaindar Nikaragua eta El Salvadorren izan dira abuztuan eta irailan. Silvia

Gomez eta Maria Eugenia Argiñano Nikaraguako Chinandegan izan dira; Iñigo Castro Nikaraguako Somotoko Los Quinchos zentruan; eta Leire Contreras eta Mari Mari Outeiriño El Salvadorren, erizain lanean. Lehenengo hiruek bigarren urtez joan dira eta azkeneko biek, aurtan izan dute lehenengo aldia. Seigarren bat ere izan da, Aloña Garmendia, iaz bertan izan eta gustukua izan zuenez, bere opor egunak bertan pasatu ditu, bere kontura.

Silvia Gomez, Maria Eugenia Argiñano eta Aloña Garmendia Chinandegan izan dira, iaz bezala, emakumeen alfabetatzeko proiektu batean. Bigarren aldiak ematen duen esperientziarekin, aurtan gusturako egon direla esan digute. Emakumeek idazten eta irakurtzen ikasteaz gain, eguneroko bizitzan sortzen diren gaiak aztertzen dituzte. Aurtan dena den, komunitateetan bizitzeko aukera izan dute. Palmoritzko teilatuak, argirik gabe, oinez edo zaldiz ibili behar... Bizitza gogorra den arren, beste balore batzuk dituztela esan dute beasaindarrek, eta gustura bizi dira. Mugen Gainetik gobernuz kanpoko erakundearekin joan dira bertara.

Iñigo Castro ere iazko leku berean izan da, Somotoko Los Quinchos Prebentzio zentruan. Eskolara joaten ez diren haurrekin aritu da lanean. 50 bat haur omen ziren, 6-14 urte bitartekoak. Kaleko haur hauek gizarteratzeko lanbideak erakusten zaizkie bertan. Jana ere ematen diete. Honek gobernuz kanpoko erakundearen bidez joan da Iñigo Somotora.

Leire Contreras eta Mari Mari Outeiriño erizainak OCSI gobernuz kanpoko erakundearekin joan dira El Salvadorrera. Batez ere prebentzio eta sentsibilizazio lanean aritu dira, osasunean, elikadurak eta garbitasunak duen garrantziaz jabe zitezen. Medikuek zentruak komunitateetatik urruti daude eta osasun sustatzaileak joaten dira etxetik etxe, oinarritzako kontrolak eginez.

Osasunari ez omen diote garrantzia handirik ematen. Gainera medikuaren kontsulta ordaindu beharraz gain, sendagaiak oso garestiak dira. Hemen baino garestiago omen daude sendagaiak El Salvadorren. Beasaindik sendagaiak eraman zituzten eta asko eskertu zioten El Salvadortarrek.



Goitik hasita, ezkerretik eskubira: Iñigo Castro, Silvia Gomez, Aloña Garmendia, Maria Eugenia Argiñano, Mari Mar Outeiriño eta Leire Contreras.



XENKEGI
ETXE-AROKINTZA
Diseinuak neurritan

Erakusketako Tel-faxa: 943 889113
Tel mugik.: 619 487056
Senpere Merkatalgunea, 25

**Sukaldeak
Ateak
Zorruak
Armairuak**

BEASAIN



Garraiolariak eta baserritarrek greban

Gasoilaren prezioaren igoera salatzeke garraiolariek greba egin zuten urriaren 2tik 4ra. Azkeneko egunean, baserritarrek eta taxistek ere bat egin zuten protestarekin. Guztiek elkarrekin, protesta martxa egin zuten Goierriko hainbat lekuetan, argazkian ikus daitekeen bezala.



Bi beasaindar hilda Martzillako autobus istripuan

Urriaren 26ko goizaldean Martzilla parean gertatu zen autobus istripuan bi beasaindar hil ziren. Autobusaren gidaria, Angel Herrero eta Josetxo Imaz. Zaurituen artean, Amaia Insausti korrikalaria eta bere ahizpa ere izan ziren.

Josetxo Imaz korrikalari beteranoa zen. Behobia-Donostia lasterketa 50 aldiz jarraian egindakoa da.

Errumaniara laguntza humanitarioa

ONGD Compartir elkarteak abenduan laguntza humanitarioa bidaliko du Errumaniara, 'Etorkizuna itxaropenarekin' proiektuarentzat. Umerzutzetxea utzi beharrean dauden gazteak gizartean eta lan munduan txertatzea da proiektu honen helburua. Pitesti herrian Vitoria Etxea jarri da martxan, 10 gazterekin. Bertan oinarritzeko beharrei erantzuten saiatzen dira. Ikasten jarraitzeko bekak ematen dira eta profesionalki ere prestatzen dira lanpostua lortzeko.

Beraz, Beasaingo Komunitate Kristau Ebanjelikoak bilketa berezia egingo du, azaroaren 8tik 10era, arratsaldeko 6etatik 8etara, Beasaingo Jose Maria Iturrioz kaleko 27. zenbakian. Galtzen ez diren janariak (pasta, arroza, olio, esnea, gailetak, kontserbak...) eta garbigaiak (lejia, fregonak, xaboia, hortzetako pasta, hortz zepiluak, konpresak....) bildu nahi dira.

Saharako pelikula

Jon Andueza kazetari eta zinema zuzendaria Saharako herriaren bizimoduari buruzko dokumentala grabatzen ari da. Horretarako, Ormaiztegiako familia baten bizitza hartu du oinarria; Gurutze Irizar eta bere seme-alaba Garazi eta Beñatena. 'Fatimetu, desertuaren deia' izango du izena Orio Produktioak etxeak ekoiztutako dokumentalak.

XIV. Gipuzkoako mendizale federakundearen helduen ibilaldi neurtua Ordizian

Urriaren 29an, Ordizian izango da XIV. Gipuzkoako mendizale federakundearen helduen ibilaldi neurtua. Goizeko 8etan abiatuko da plaza Nagusitik, eta bost orduko iraupena izango du.

Bi edo hiru mendizalez osaturik izango da talde bakoitza eta 40 urtetik gorakoak izan behar dute.

Izen ematea Ordiziako Mendizaleak Elkartean edo Plaza Nagusiko irteera mahaian egin ahal izango da.

Ustekabez, Ordiziako Mendizaleak alda dezake ibilaldia eta halaberbeharrez bertan behe- ra utzi ere bai. Ordiziako Mendizaleak elkar- teak ez du izango ibilaldian gerta daitezkeen istripuen erantzunkizunik. Osasun kontrolak jarriko dira ibilaldian zehar. Dutxa zerbitzua ere bai.

Iñaki Azurmendi

Arriarandarrak Eukal Herriko 2. mailako aiz- kolari txapelketako finala jakatuko du igande honetan Getxon. Urriaren 12an Basaurin jo- katu zen finalerako sailkapen proban 2. gera- tu zen Azurmendi. Finalean ere 1. edo 2. pos- tua lortzen badu datorren urtean 1. mailako txapelketan parte hartzeko aukera izango du. Gipuzkoako 2. mailako txapelketa irabazi on- doren datorren urtean 1. mailan parte hartuko du Iñakik.

Lau t'erdiko txapelketa

Xabier Imaz pilotaria lau t'erdiko txapelketa- tik kanpo geratu zen urriaren 16an Tolosako Beotibarren Imanol Agirreren aurka 22-10 galdu ondoren. Akats asko egin eta partidu txarra jokatu zuen Imazek.

Beste segurarrak, Martin Alustizak, urria- ren 29ko asteburuan jakatuko du txapelketako lehen partida. Aurkaria Urionaguena-Patxi Ruiz norgehiagokako irabazlea izango du.

JUAN KAR

- * Zoruen lixatu eta barnizadurak hautsik gabe
- * Parket ezartzeak

☎ 943 73 19 45 - 639 96 28 50
San Inazio, 42-2. ez. LEGAZPI

SOLOZABAL AUTO-ESKOLA

Mota guztietako baimenak:
B, B+E, C, C+E, D, D+E, A1 eta A

Aita Urdaneta ORDIZIA
☎ 943 88 72 76

GOIERRITARRA doan

jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

.....

Helbidea

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali



**Patxi
Telleria**

**Azaroaren 5ean,
Telleriatarrek
aurten
bederatzigarren
bilkura dutenez,
Patxi Telleriak
egun hori nola
ospatzen duten
kontatzen digu
bertso sorta
honetan.**

1

Aurtengon beatzigarrena
bildurikan alkarrena,
azaron bosten, izango degu
Telleriaren eguna,
meza entzunez lendabiziko
gurtuz Lierniko Ama. (bis)

2

Gora biotzak jasoak
otoizka talde osoak,
gogoratuaz illak diraden
senide ta gurasoak,
da guri ere lagun deigula
gure Amatxo gozoak. (bis)

3

Kurutik txistuen otsa
aldaren aureskun dantza
dantzatzen dunak irudikatuz
berak aingerutsen antza
Amari esker eta eskatuz
gu guztiontzat laguntza. (bis)

4

Meza ondón argazkia
bildurik talde guztia,
ta jarraian arri jasotzen
gizon sasoiko gaztia,
oso pozikan artu oi degu
ikustekore astia. (bis)

5

Ondorengo alkartzea
basoerdiak artzea,
bata besteren berri jakinez
da urteroko martxea,
galde-erantzun amaika kontu
kontaz belarri ertzea. (bis)

Telleria- tarren bilkura

6

Gero andik bazkaltzea
nork bere lekuk artzea,
antolatzaillen oitura au da
mai batean jartzea,
inon bearrik ikusten bada,
azkar juan laguntzea. (bis)

7

Patxinen da Mujikanen
txandatzuz oi da geienen,
bazkari ona egiten degu
janean eta edanen,
baitare festa armatu oi da
umoren jartzen geraneri. (bis)

8

Bazkari jarraian brindis
kopa txanpanakin disdis,
zortzi alditan eginak gaude
aurtengoan beatzi aldiz,
bakoitzak berak bere gustora
bein eman edo eman bis. (bis)

9

Galdetu oi da aurrena
zein dan bikote zarrena,
andre bat eta gizonezkoa
bildurikan alkarrena,
makil da txapelak emateko
taldean dagon gaztena. (bis)

10

Esana degun bezela
makila eta txapela,
berogarri ta aginterako
biak izan ditzatela,
burun txapela, eskun makila,
errespetoa orrela. (bis)

11

Ederki bazkaldu baña
oraintxe dator ordaña,
antolatzaillen esku dagota
egin bear alegina,
gañerakoak maiean trankil
lasai edanez txanpaña. (bis)

12

Telleriatar kastea
orain datorre festea,
soinu ta txistu eta pandero
jazbana ere bestea,
auek danakin osa oi degu
urteroko orkestea. (bis)

13

Zorionaren gorantzan
tabernan da enparantzan,
umore ona ez bedi falta
beatzigarrenge ekingintzan,
era orretan bukatu oi da
kantatuaz eta dantzan. (bis)

ZUHAIZKI
S. A. L.
ZURGINDEGIA



✕ LEIHOAK, ATE-
AK eta abar
✕ ESKAILERAK
NEURRIRA



Cuatrovientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa
20491 LEABURU
Tfnua.: 943 67 36 11
Faxa: 943 67 36 55



Barandiaran
ZERAMIKAK



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxebizitzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, hidromasajea, iturri eta gehigarriak
- Ikatz eta egurrezko sukaldeak

☎ 943 88 79 72 **Senpere, 7 BEASAIN**

Euskara txukunean

Bilduta dago

Gaur asko entzuten dira honelako formak: **Zuzendaria bilduta dago.** Ondo al dago? Ez, ez da inola ere zuzena. **Zuzendaria bilera batean dago** esan behar da euskaraz. **Bilduta** ogitartekoak jarri ohi ditugu edo umeak mantantan.

Entzun dizugu Entzun zaitugu

Entzun dizugu ala entzun zaitugu esan behar dugu? **Entzun dizugu**, era arruntean behintzat. **Entzun dugu** txorien kantua baina **Entzun dizugu** zer esan duzun.

Maizpide Euskaltegia

Loreak luzaro irauteko sekretua?

Egunero ura aldatu eta zurtoinari zentimetroren bat moztu.

Loreei hitz egin behar al zaie?

Ez, nahiz eta guretzat terapia ona izan.

Gehien gustatzen zaizun lorea?

Larrosa txuria.

Gutxiena?

Krabelina.

Kolore bat?

Laranja.

Usain bat?

Lurraren usaina.

Loreak lehorrak ala naturalak?

Naturalak eta lehorrak.

Oparitzeko zer hobe: bonboi kaxa bat ala lora sorta bat?

Lora sorta bat.

Zure maiteari oparitzeko lora mota bat:

Orkidea.

Gorroto duzunari oparitzeko lora mota bat:

Ez nioke lorarik oparituko.

Bizitzeko leku bat

Inguruko herriren bat, aukeratzekotan Altzo.

Oporretarako leku bat:

Cadiz edo Almeriako kostan egon daitekeen txokoren bat.

Amets bat:

Ametsak egi bihurtzea.



Amaia Argarate

Lili lora denda



TOKI ALAI taberna jatetxearen ustiaketa esleitzeko lehiaketa deitu du Aramako Udalak.

Informazioa jasotzeko deitu 943 88 11 70 telefonora.



**ARAMAKO
UDALA**

Etxean energia nola aurreztu

Euskadin kontsumitzen den energia osoaren %12 etxean erabiltzen dugu. Ehundaka milioi pezeta gastatzen ditugu. Europan kontsumitzen den energia kopuruarekin alderatuta, gure kontsumoa ez da oso handia. Baina piskanaka-piskanaka maila berera heltzeko abiatzen hasi gara.

Hemengo eguraldia ipar Europakoa baino epelagoa denez, gutxiago gastatzen dugu etxeak berotzen. Baina gero eta etxeko tresna gehiago erabiltzen ditugu etxe eta pertsona bakoitzeko. Eta hori dela-eta, etxeetako energia kontsumoa izugarri igo da.

Etxean gutxiago kontsumitzeak ez du esan nahi erosotasunei uko egin edota sakrifizio handiak egin behar ditugunik. Kontsumo gutxiko bonbilak erabiltzea, ordenagailua eta telebista itzaltzea erabiltzen ez direnean, garrantzi gutxiko gauzak iruditzen zaizkigu, baina oso baliagarriak dira energia aurrezteko.

Energia aurrezteko, etxean egin-beharreko hobeak kontutan eduki behar dira, besterik ez.

Isolamendua

Kanpoko isolamendua ona

izan behar da. Komenigarria da leihoetan bi kristal jartzea. Beroa ez dela alferrik galtzen ziur egon behar dugu. Horretarako, junturak erabil daitezke. Pertsianek eta gortinek ere beroa gordetzen lagunduko digute. Hormak, sabaiak eta zoruak isolatzeko, hainbat material erabiltzen dira: artile minerala, beira-zuntza eta kortxo.

Berokuntza

Berokuntzari dagokionez, komenigarria da termostatoa izatea. Termostatoak tenperatura erregulatzeko balio du. Berdin dio berokuntza-mota zein den. 10 minutu nahikoa da etxea aireztatzeko. Berogailua piztuta badago, ez ireki leihoarik.

Etxean berokuntza zentrala badaukazu, nork bere faktura ordaintzeko eska dezakezu. Horrela, besteek xahutzen dutena ez duzu zuk ordaindu beharrik izango.

Etxeko tresnak

Etxeko tresnei begira, hobe da kontsumo txikiko tresnak erostea. Arropa- eta ontzi-garbigailuek kontsumitzen dute gehien, ura berotu behar dutelako. Erosi baino lehen, komenigarria da zen-

bat ur hartune dituzten begiratzea. Berogailu arruntaren ura erabiltzea posible bada, hobe (berogailuak tresnaren motorrak baino gutxiago kontsumitzen duelako).

Hozkailuan ez sartu bero dagoen ezer, eta ateko goma noizean behin aldatu. Hozkailuan ez da izotz zuri edo antzigarrik sortu behar; bestela, motorrak bi aldiz gehiago lan egingo du-eta.

Bonbilak

Azkenik, erabil itzazu kontsumo gutxiko bonbilak. Luzaroago irauten dute eta elektrizitate gutxi gastatzen dute. Garestiagoak dira, bai, baina laster amortizatzen dira. Beste alde on bat ere badute bonbila hauek: karbono dioxido erradiazio gutxi igortzen dute.

Ikusten duzue, aholku errazak dira. Eta dirua aurrezteko ezezik, natura zaindu eta gordetzeko ere balio dute.

- Isolatu ondo etxea.
- Gasa edo elektrizitatea aukeratu baino lehen, konparatu kontsumoak.
- Itzali tresnak erabili eta gero.

EKA (Euskal Herriko Kontsumitzaileen Antolaketa)

Lehiaketa

Galdera

Nork irabazi du itzulpengintzako Euskadi Saria?

Erantzuna urriaren 30erako bidali behar da, Ordiziako 124 posta-kutxara. Bertan izena, helbidea eta telefono zenbakia zehaztuz.

Aingeru Epaltzaren 'Baloika' liburua eta GOIERRITARRA-ren kamiseta.

Aurreko irabazlea

Aurreko galderaren erantzuna: zaldibiarra.

Irabazlea:
Josune Munduate (Zaldibia)

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



*gizarte-ekintza
obra social*

Gipuzkoako artisauen azokaren 3. edizioa

Artisaualdia: urriak 21 eta 22, Ordizian

Gabiltza, Gipuzkoako Artisauen Elkarteak antolatutakoa, III. Artisaualdia izango da urriaren 21 eta 22an, Ordiziako Majori Kiroldegian. Gipuzkoa eta Bizkaiko 50 artisau izango dira bertan. 10:30etik 14:30era eta 17:00etatik 21:00etara egongo da irekita azoka. Sarrera, 200 pezeta kostako da. Berrikuntza ugari izango ditu hirugarren edizio honek. Musikarekin giroa alaituko dutenek, Ordiziako Musika Eskolako gazteak izango dira.

1996. urtean sortu zen Gabiltza, Gipuzkoako hainbat artisauk zeukaten kezka zirela medio. Duela hiru urte Artisaualdia ospatzen hasi ziren Ordizian.

Urriaren 21ean eta 22an, egun osoan, egongo da irekita Artisaualdia. Sarreraren salneurria merkeagoa izango da aurten, 200 pezeta. Azokan egiten diren erosketetan beherapenak egingo dira, gutxienez 2.000 pezetako erosketa eginez gero. Preziorari sarreraren prezioa gutxituko zaio. Sarrera txartela gorde egin behar da, zenbaki baina izango baitu txartelak eta



orduoro 5.000 pezetako baliola izango duen erosketa txartela zozketatuko da. Azokan salmentan dauden produktuak erosi ahal izango dira txartel horrekin.

Tailerrak

Tailerrak izango dira haur eta helduentzat, dohainik, eta gutxienez 10 lagunekoa taldeak osatu beharko dira. Ordubeteko iraupena izango du tailer bakoitzak eta azokan bertan egingo dira. Goizeko 11etan hasita, taila, zeramika, larrugintza, lore lehorrak, pilota, esmalte, kandela, saskigintza eta euskal grafia tailerrak izango dira.

Erakustaldiak

Bi artisauk, zuzenean, bi erakustaldi egingo dituzte. Larunbatean, Patxi Jimenez hondarribitarrak, kupelak nola egiten diren erakutsiko die bertaraturakoei. Igandean, be-

rriz, Iruñeko Txantreako Sergio Makirriainek, harri aroko tresnak nola egiten ziren erakutsiko du.

Internet

Web orrialdea ireki du Gabiltzak eta bertan artisau bakoitzak egiten duen lana ezagutzeko aukera dago. Artisaualdiaren berri zehatza ere izango da Interneti esker. Munduko edozein lekutik, azokarekin komunikatzeko aukera izango da, zuzeneko irudiak eta ekitaldiak jarraitu ahal izango dira. www.gabiltza.org/artisaualdia da web orrialdearen izena.

Ordenagailuak jarriko dituzte Artisaualdian. Batetik, ikusleen eskura jarriko dira Interneten dauden artisautzari buruzko orrialdeak bisitatu ahal izateko. Bestetik, kanoi handi bat jarriko da azokako pareta batean argazkietan han

gertatzen dena orduoro, bertan ikus ahal izateko.

Miniaturen lehiaketa

Urriaren 21ean, Gipuzkoako I. Miniaturen lehiaketaren saria banatuko da. Artisauen sormena, orijinaltasuna eta trebetasuna suspertzea du helburu lehiaketa honek. Gipuzkoako artisauk har dezakete parte bertan. 3 sari banatuko dira: 25.000 pezeta, 15.000 eta 10.000 pezetako sariak.

Stand apainketa

Artisauen stand dotoreneentzat sariak ere izango dira. 25.000, 15.000 eta 10.000 pezetako sariak banatuko dira urriaren 21ean.

Hitzaldiak

Azoka eta erakusketa asteburuan izango bada ere, gaur, urriak 20, artisautzaren inguruko gaiei buruzko bi hitzaldi izango dira Ordiziako Barrena Kultur etxean.

Arratsaldeko 5etan izango da lehenengoa, artisauen eta Foru Aldundien arteko harremanei buruzkoa. Angel Martin Enpresaritza Zientzietan lizentziatua izango da hizlaria.

Bigarrena, 7etan hasiko da, artisauen eta artesau merkatarien arteko harremanen ingurukoa izango da, Pilar Aycaren, Turismo ikasketetan lizentziatua, eskutik.

Boni-etxe

igeltseritza orokorra

© 616 921 502 Oriako pasealekua, 12 BEASAIN

JAUREGI

TOLDOAK s/l

Tfnoak.: 943 88 02 43

943 88 01 33

BEASAIN

Juan Elgarresta Gabiriako abarkagilea:

"Abarkak ez zituzten sukaldean larruak egiteko, baina ganadujanen azpian bai."

Larrazko abarkak egiten ditu Juan Elgarresta gabiriarrak, bere aitona egiten zituen eran. Behiaren azala erabiltzen du horretarako. Abarkak nola egiten diren eta bere inguruan kontatzen diren istorioak kontatu dizkigu Elgarrestak.

Aitona zenarekin egiten zituen abarkak, 13 bat urte zituenerarte. Etxerako egiten zituen aitona abarkak. Amonak, berriz, artilezko galtzerdiak. Urretxun 1980. urtean euskal jaiak hasi zirenean, erakustaldia egin zuten. Handik aurrera, batetik bestera ibiltzen dira abarkigintza erakutsiz.

Gizakiak beti izan du larruarekin gorputza babesteko joera. Oinen azpialdea babesteko abarkak erabiltzen zituzten.

Behi larruarekin egiten dira abarkak. Gaur egun dena den, ondutako larrua erabiltzen da, nahi den kolorearekin eta sendoera jakinarekin. Lehen larruak berak zeukan sendoerarekin egiten ziren. Behiaren larruak sendoera ezberdina izaten du atal batean eta bestean. Juan Elgarrestak adierazi digunez,



abarka egiteko atalik onena lepokoa da, lodiena bera da eta.

Nahiz eta larru naturala izan, kolore ezberdineko larruak izaten dira, behi arrazaren arabera. Behi pintoak esaterako, ile beltza daukan lekuan, larrua ere ilunagoa izaten du.

Oraingo abarkek, goxotasunean behintzat, ez daukate zerikusirik lehengoarekin. "Orain goxoagoak dira abarkak, lehengoak, larruak ondu gabeak zirenez, oso go gorrak izaten ziren", dio.

Larruaren prozesua

Hiltegietan erosten zen larrua. Zatika edo atalka ez zen saltzen larrua, oso-osoa erosi behar izaten zen. Dena den, Juan Elgarrestak jakitera

eman digunez, larrua erosteko bada neurri berezi bat: oina. 30 bat zentimetroko neurria omen da Euskal Herrian, nahiz eta beste herrialderen batzuetan neurri hori aldatu egiten den.

Larrua lehortzea izaten zen hurrengo egitekoa. Ganbaran, tira-tira eginda, bi iltzerekin josia, jartzen zen larrua lehortzen. Buru alde behera begira jartzen zuten. Udan, 3 astean lehortzen omen zen. Marraza edo kutxilla batekin grasak eta odol mantxak kendu behar izaten zitzaizkion. "Oso lan luzea izaten zen".

Abarkaren prozesua

Neurri ezberdinetako abarkak izaten zen, plantila funtzioa egiten zuena. Neu-

rriak, dena den, ez gaur bezain ugariak: emakumezkoentzako hiru neurri, gizonezkoentzako beste hiru eta umeentzako beste hainbeste.

Abarka-olan ebakitzen zen larrua. Aurrealdea, bi muturrak, alde zurienetik josi, eta buelta eman. Soka pasatzeko, buelta guztian, zuloak edo ebakiak egiten zitzaizkion, zulo-txikiarekin edo abarka-eztenarekin. Dena bere larruarekin josten zuten.

Juan Elgarrestak abarka zaharrak erakutsi dizkigu eta abarka batzuetan atzealde guk ezagutzen dugun bezala borobildua eduki beharrean, "irekiak" direla ikusi dugu. "Abarka-olaren eran ebakiz gero larrua, abarkaren atzealde irekia gelditzen da. Atzealde borobilduz gero, gaur egun ezagutzen dugun eran, borobilduta".

Zergatik hain soka luzeak?

Abarken beste ezinbeste elementua soka da. Artilearekin egiten ziren garai batean sokak. Baina, abarkak zergatik dauzka hain soka luzeak? "Hankan, beheian lotzen zen eta orkatilako babesgarri bezala erabiltzen zuten. Gaur egun, gora aldera lo-



Nafarroa
Etorbidea, 9

EGUZKI
INPRIMATEGIA

☎ 943 88 94 82

BEASAIN

AMEB



Sagardotegia

Erretegi bezala irekita

- * Eguneroko menuak
- * Asteburuko menu bereziak
- * Karta zerbitzua
- * Sagardotegiko menua
- * SAGARDOA TXOTXETIK
- * Plater konbinatuak

Zubierreka,9 ☎ 943 16 25 23 **LAZKAO**

lehortzen uzten, zaku bustien edo aizik"

tzen da, ador-noubezala".

Asteguneta-ko eta igandeta-ko abarkak izaten ziren. Igandeetakoek, aurrealdean, bi begi beltz izaten zituzten.

Artilezko galtzerdiak edo mantarrak erabiltzen zituzten. "Babes handia egingo zien hain galtzerdi lodiak erabilita. Mantarra, manta zati bat bezala izaten zen, grisazka. Mantar mutur bat oin azpian jarri eta gero hankari buelta emanez lotzen zen. Mantarrarekin gutxiago bustiko ziren", dio Elgarrestak.

Lehorrarekin komeriak izaten zituzten abarkekin ibiltzeko. Oso irristakorrak omen ziren. Partxeren bat ere jartzen zien gehiago heltzen zielakoan.



Oso oinetako gogorrak izaten ziren. Bustita erabilgarriagoak izaten omen ziren, goxatu egiten baitziren. Gabiriarrak istorio bat kontatu digu honen inguruan: "gure aitona zenak eta, sekula ez zituzten abarkak sukaldean lehortzen uzten, zaku bustiren baten azpian edo ganaduarentzat ganadujanak ekarritako belarraren azpian. Hezetasunarekin abarkak goxoagoak egoten omen ziren".

Abarkak gertaera historikoetako protagonista

Nafarroako Antso II.a Gartzesen ekintzarik gogoangarriena elurrez betetako Pirinio iraganezinak zeharkatu zituenekoa dugu. Honela izan zen gertaera: 985. urte aldera Antso II.a Bortuez bestaldera joan zen normandiar pirata beldugarrien erasoei eutsi ezinean zebilen bere koinatu Gilen Santxez Gaskoniako Dukeari laguntzera. Erregea urrun eta urte-sasoi gordina, Iruñea menperatzeko garai aproposa iruditu zitzaizen mairuei. Nafarroako Hanibalek, orde, berak eta bere armadak abarka traukilak oinetako, ustekabean harrapatu eta suntsitu egin zituen mairuak. 987. urteko agiri batean azaltzen denez, Erregeak 'Abarka' izengoitia ezarri zion bere buruari:



"Yo D. Sancho, Rey por la gracia de Dios y por sobre-nombre 'Abarka'".

Geroagoko hainbat autorek ere aipatzen dute gure oinetako berezia. 'Codes Compostellanus' latinezko eskuizkribuaren egileak kontatzen digunez, XII. mendeko euskaldunek zangoetan artilezko zerrendaz loturiko larruzko abarkak janzen zituzten.

III. ARTI/AVALDIA



GIPVZKOAKO
ARTI/AVON
AZOKA

ORDIZIA

URRIAK 21-22

Majori Kiroldesia

Ordutegia: 10:30etik 14:30era
17:00etatik 21:etara

www.gabiltza.org/artisaualdia



OSKARBI
OINETAKOAK



Mota guztietako
eta adin guztien-
tzako oinetakoak.

Kickers



K. Nagusia, 25

88 19 44

ORDIZIA

Euskal Herriko arraza autoktonoen erakusketa urriaren 22an Ormaiztegin

Urriaren 22an, Ormaiztegin, Euskal Herriko arraza autoktonoen erakusketa izango da lehenengo aldiz. Ormaiztegiko zelai eta Zubipe kiroldegi inguruan, Euskal Herrian berezkoak diren arrazako abereak bertatik ikusteko aukera izango da. Aurkeztuko diren abere arraza horietatik asko autoktonoak izateaz gain, desagertzeko arriskuan ere badaude. Azken urte hauetan abere horien egoeraz oharturik hainbat elkarte eta gizabanako etenik gabe lanean ari dira abere horiek babestu eta desagertu ez daitezen.

Abere horien kontserbatzeak duen garrantziaz oharturik, Euskal Herriko arrazen erakusketa antolatzea oso interesgarri eta beharrezkotzat jo zen arraza autoktonoen hainbat elkarte, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Ormaiztegiko Udalaren aldetik. Aipatu erakunde eta elkarrekin gain, ekitaldia antolatzeko Irizar Kooperatibaren laguntza izan da.

Arrazen egungo egoera kontuan harturik, burutzen ari diren lanak biltzearen, aurreko lehen aldiz eta gerora finkatzeko asmoz, Euskal Herriko arraza autoktonoen erakusketa antolatzeko erabakia hartu zen. Egun abere horiek kultur ondarearen atal garrantzitsua bezala onartzen dira, eta ez da ukatzen fauna basatiaren balioa paisaia eta

ingurugiroarekiko, ezta hura desagertzeaz babestu beharra ere.

Aziendak bi alderdi horiek biltzen ditu: alde batetik, abere horiek euskal paisaiaren osagaiak dira eta bestetik, euskal ganaduzaleek mendeetan zehar egindako lanaren emaitza.

Abere autoktonoen erakusketan parte hartuko duten elkarte eta abereak ondorengoak izango dira: Betizu, Terreña eta Pirenaika; Pottokak; Euskal oiloa; ardietan, sasiardiak, mutur gorri edo latxak eta mutur beltzak; ahuntz azpi gorriak; euskal ardi txakurretan, iletsua,

Gorbeiakoa eta Villano txakurra; Ormaiztegiko karra-marroa; euskal txerria eta euskal erlea.

Ondoko koadroetan, betizua, euskal oiloa, sasiardiak, euskal pottoka eta terreña arrazaren inguruko xehetasunak dituzte.

Aitzibier Murua

Euskal Pottoka

Milaka urteetan euskaldunok lagun izan dugu zaldi txiki hau eta euskaldunon jatorria bezala, Euskal Pottokarena ere ez dago oso argi.

Hala ere badakigu atlantiar jatorriko zaldiekin erlazioaturik dagoela, bai Asturko, Dartmoor eta Landetako poniarekin.

Urteetan arraza nahastu gabe mantendutako arren azken urte hauetan kanpoko zaldi arrazekin nahastu da ia desagertzearaino.

Ezaugarriak

Euskal Pottokaren jatorrizko kolorea beltza edo gaiztain iluna da, azken mendeetan pintoa ere sartu delarik, oso sendoak eta egoera gogorrenetan bizitzeko egokituak daude.



Soin-gurutza 130 zentimetro neurtzen dute, belarri txikiak, hanka finak baina sendoak, hanketan ile gutxi, gorputz proportzionatua eta zurde luzeak dituzte. Ipurdia zatitu gabea eta isatsa nahiko behean hazten zaie.

Eguraldi txarrera egokituak daudenez, neguan ilea luzatu egiten zaie eta udan ile motza izaten dute.

Terreña idia

Arraza honetako animaliak, Gipuzkoan, Eskoriatzan, talde bat badugu ere, Euskal Herrian, Araban eta Bizkaian daude hedatuta gehienbat (Gorbeialdean, Arabako Salbada eta Gibijo mendi kateetan eta Bizkaian, Orozkon).

Terreña arrazako animaliak garai batean ugariak ziren, oso ospetsuak ziren arraza horretako idiak eta arrunta zen gure baserrietan ikustea gurditik tiraka. Gaur egun, zoritxarrez, zenbait arrazoï bitarteko (arraza honen haragia ekoizteko ahalmena handitzeko asmoz edo, haragitakoak diren beste arrazetako animaliekin nahastu izana; osasun kanpainak egiteko harrapatu beharra; kanpoko idiak ekarri izana terreña arrazakoak ordezkatzu, eta abar), arraza hori ia desagertzear dago.



Ezaugarri nagusiak:

- ✓ Arraza honetako animaliak, elikadura, orografia edota klimatologia baldintza gogorretara oso ongi egokitzen dira.
- ✓ Oro har, animalia txikiak dira, azala gaitaina kolorekoa dute, zenbait tonalitatean, eta baita hur kolorekoa ere.
- ✓ Mukosak beltzak edo arbel kolorekoak dituzte, apatxak beltzak.
- ✓ Adar finak, zuriak, mutur beltzekoak.

Betizua

Betizua izena, euskarako 'behi' eta 'izua' hitzetik dator, eta, izenak berak adierazten digu nolabait animalia honen izaera. Betizuaren jatorriari dagokionez iragan urrutira jo behar-ko genuke, izan ere, zenbait adituen aburuz duela milaka urte Pirinio mendikatearen alde bietan bizi zen behi azienda basatiaren ondorengoa litzateke, izan ere, Pirinio guztiko mitologian sarritan aipatzen da 'zezen gorria'.

Ezaugarri nagusiak

- ✓ Betizu arrazako animaliak, elikadura, orografia edota klimatologia baldintza zailetara egokitzeko ikaragarritzko ahalmena dute.
- ✓ Jabea badute ere, asko eta asko animalia basatien erara bizi dira, urte guztia mendian ematen dute, eta, ez dute gizakiaren beharrik ez elikatzeke, ez eta ugaltzeke ere (normalean bi urtetik behin izaten dute txahala).
- ✓ Biziak dira oso, buru tenteak, eta, askatasun osoz mugitzen diren arren mendian zehar, beraien esparruak izaten dituzte (negurako esparru ireki, zabal eta eguzkitsuak auke-ratzen dituzte; udan aldiz, toki ospelak nahia-ko dituzte).
- ✓ Oro har, animalia hau gutxi hazten da, txiki samarra da, gorputz luzea eta profil zuzena.
- ✓ Burua handia eta fina du, bekoki zabala eta laua, zabalagoa arrek, begi adierazkorrak, begirada bizia eta begi inguruak argi-agoak, adajea, kolore horixka du, arren-angilari er-



di baten itxura hartzen du, eta emeengan, adinarekin, lira itxura.

- ✓ Lepo motza, gihartsua, lepagaina nabarmena arren-angilari eta lepapea, handia, zintzilik sexu bietan.
- ✓ Bular estua, bizkarralde zelatua, gilborra (atzealde) oso estua eta ipurmasail laburrak ditu, eta buztana goitik irteten zaio, luzea da, eta motots ugaria du muturrean.
- ✓ Eskeleto mehekoa da eta gorputz adarrak ertainak ditu.
- ✓ Errape txiki-txikia dauka, otsoen erara ile ugarirekin, eta bere txahalarentzat adina bakarrik ematen du esnea.
- ✓ Kolore gorrikoa da, gari koloretik bizienera, sexuaren eta urte sasoiaren arabera. Mukosak zurigorriak ditu, apatxak argiak eta orban beltzik gabekoak, eta azala, berriz, oso lodia, askea eta mugikorra.



Euskal oiloa

Fernando Orozko doktoreak 1975. Urtean INIAren Animalia Genetiko Departamenduan, kontserbatu eta aztertzeke programaren barnean, Euskal Herriko oiloen berreskurapena lortzeko, plangintza abian jarri zuen. Gaur egun, Euskal Oiloaren estandarra gauzatu dago eta hauek dira bere ezaugarriak:

- ✓ Hegazti erdi astuna da, gandar ertainekoa, belarritxo labur eta hanka horiak dauzka.
- ✓ Arraza landatarra da, bai erruleztat, bai haragitarako egokia.
- ✓ Arrautzak: handi samarrak, 60 bat gramokoak, oskol ilunekoak.
- ✓ Pisua: oilarrak 3,6 kilo inguru. Oiloak, 2,5 kilo inguru.
- ✓ Kolore barietateari dagokionean, marraduna, gorria, zilarra, beltza eta leposoila dira.

Sasi ardiak

Sasia (laharra, zaparra) mazustak ematen dituen arantzadun zuhaizka da. Sasi ardia lursail sasituetan eta landaretza ugaria dagoen lur sailetan ondo moldatzen den ardi azienda mota da.

Ardi honen ohiko kokapena Oartzundik Goizuetara, Gipuzkoa eta Nafarroak muga egiten duten lur eremuetan izan da.

Animalia hau urteen poderioz artzainek egin duten ardi mota da. Gogorra eta paraje zailetan bizitza ateratzen dakiena, sasiz zein pago ezkurra janez bizi eta arkumea hazteko gai dena, ia urte osoa edo osoa etxeratu gabe bizi daitekeena.

Hezurdura meheko animalia, izan duen elikaduraren arabe-



ra gehiago ala gutxiago hazten da, baina bere ohiko tokian ez da larria izaten. Burua eta belarriak txikiak eta tenteak, begirada ernea eta azkarra, mutur gorriak gehienak, lepo luzea eta soila edo erdi soila. Bularra estua eta barnealdera sartua. Hankak meheak edo finak. Gorputzean ile gutxi eta txipa barrera soila. Errapea tripari ondo itsatsia. Atzeko hankak aurrekoak baino luzeagoak ditu.

Ezaugarriak dira, ama ona eta taldeko grina gutxikoa izatea. Hortik beraien mendian sakabanatzeko joera.

Bere gaur egungo egoerari dagokionean, gainbehera dator bi arrazoi nagusirengatik. Batetik, artzainak bere motako aharriekin estaltzeari utzi egin diotelako eta bestetik nekazal munduak izan duen aldaketaren ondorioz.

Animalia honek etorkizunerako gordetzen duen altxor genetikoagatik, bere ohiko inguru zailetan moldatzen den era ezin hobeagatik, eta iraganetik datorkigun ondarea delako, ardi azienda mota hau babestu egin behar dugu. Ezin baitugu desagertzen utzi.

James Joyceren 'Dublindarrak' liburuaren itzultzailea: Irene Aldasoro: itzulpegintzako Euskadi saria

Eusko Jaurlaritzak antolatutako Euskadi sarien barruan, itzulpegintza arloko saria Irene Aldasoro idiazabalarrak irabazi du, James Joyceren 'Dublindarrak' lanarengatik. Milioi bat eta erdi pezetako saria jasoko du azaroan egingo den sari-emate ekitaldian. Epaimahaiaren arabera, 'Dublindarrak' liburuaren meritu aipagarriena zera da: "Joyceren mundu konplexua eta idazkera milimetrikoa zehaztasun bikainez euskara jorian eman izana, jatorrizko testuko ñabardura guztiei eutsiz".

Idiazabalgo Egileor base-riko alaba da Irene Aldasoro. Ingeleseko itzulpenak egin izan ditu batez ere. Euskal Telebista sortu zenean, filmak itzultzen aritu zen. EIZIE, itzultzaileen elkartearen babespean aritu zen gero lanean. Eusko Jaurlaritzak, EIZIEk eta Editoreen Elkar-teak eratutako 'Literatura unibertsala'-ren barruan, Joyceren 'Artistaren gazteta-ko potreta' liburuaren itzulpena aurkeztu zuen.

Itzulpegintza arloan gehiena gustatzen zaiona literatura itzultzea da. Bestelako itzulpen lanak ere egiten ditu, "dagoena. Zaila da literatura itzulpenetatik bizi-zea", dio Irenek.



Irene Aldasoro idiazabalarra Donostian bizi da gaur egun.

Sari garrantzitsua jasoko du azaroan Irenek. "Nire lana ontzat ematen dela esan nahi du, lan hori ondo egin dagoela. Kalitate baten erre-konozimentua da".

Joycen lana Alberdania argitaletxearen eskariz itzuli du. Euskadi sariaren epaimahaiak goraipatu egin du Aldasororen lana, zera azpimarratuz: "Joyceren mundu konplexua eta idazkera milimetrikoa zehaztasun bikainez euskara jorian eman izana, jatorrizko testuko ñabardura guztiei eutsiz". Idiazabalarra ahalik eta fidelen itzultzen saiatu da. "Joycek karga sinboliko handia dauka. Esaldian, parrafoan edo ipuinaren muntaia osoan, atzean beste zerbait izaten du. Kontuz ibili behar da atzean daukan esanahi hori ez desagiteko. Zehaztasuna aipatu izan dute epaimahai-koek, ibili naiz ahalik eta hurbilenetik esan nahi zuena aipatu nahirik. Ahalegina izan da ahalik eta fidelen ekartzea".

'Dublindarrak' liburua, 15 ipuin soltez osatutako li-

burua da, elkarren artean batasuna izanez. Karga sinboliko handia duten istorioak dira.

Itzulpegintzaren bilakaera

Itzultzaileen lana gero eta gehiago baloratzen da idiazabalarraren ustez: "nire hasierako lanak ikusten badi-tut, nahiko itzulpen traketsak ziren. Geroz eta gehiago dakizu, maisuak izan ditugu... bidea errazten eta argitzen ikusten duzu".

Euskarak daraman ibilbi-dearekin itzulpegintza asko hobetu da Aldasororen esanetan. "Euskararen bilakae-ran eta guk egin dugun bidea ikusita, jada ofizio bat du-gu... Garai batean esan izan zen euskarak ez duela balio zenbait gaiei buruz jarduteko baina ideia hori desagiten ari da. Itzulpena irakurtzea zaila zela esaten zen. Zaila zen alde batetik, itzultzaileok berriak ginelako eta lan asko geneukanez korrika eta pre-saka itzultzen genituelako; eta bestetik, irakurlea ere ohitu gabe zegoelako. Baina

poliki-poliki irakurleari ari zaio begietatik sartzen eta euskara ere poliki-poliki be-re bidea egiten ari da, libu-ruei esker, komunikabideei esker... eta batez ere hitzune-i esker. Hitzunak falta bazaiz-kigu, hor komeriak!. Elkar hartu behar dute arlo guz-tiek".

Lan neketsua

Lan neketsua eta luzea da itzulpegintza. "Literatura plazertu bat da, arte bat. Bere zailtasun horretan plazerra ematen du. Ez dakizuna aurkitzen duzu, beste zerbait aurkitzen duzu. Plazerragatik egiten dugu. Lan gogorra da, baina lan guztiak dira gogorrak. Satisfazio handia dauka", aitortu digu.

Itzultzaile bakoitzak bere metodoa izaten omen du itzulpen lan bat burutzeko. Irene Aldasororen lehenengo lana, girotzea izaten da. "Esanahia bilatu behar da. Autorearen berri asko jakinez gero, hobeto. Kontakizunean sartu eta kontakizuna-ren tonu bat harrapatu. Atse-deten uztea ere komeni izaten da. Euskarara itzultitakoa ingelerara itzuli eta atzera eta aurrera ibiltzen naiz, oreka aurkitu eta norberaren buruarekin konforme xamar gelditu arte".

Idazle noiz?

Zuk zeuk libururik idaztea pentsatu al duzu inoiz? -gal-detu diogu. Erantzuna garbia izan da: "Ez. Ez naiz idazlea. Bi gauza oso ezberdin dira. Badaude esaten dutenak, neurri batean, itzultzailea idazlea ere badela. Baina idazle sormenik ez daukat. Gustatuko litzaidake baina ez naiz idazlea".



Errementari Azpiko Joxe eta Irenen urrezko ezteiak

Orain dela berrogeita hamar urte, 1950ean, Pilarika egun batez ezkondu ziren Errementari azpiko Joxe Arrieta eta Irene Galarza. Legazpin ezkondu ziren, izan ere, Irene Legazpiko Bikuña-txiki

baserrikoa baita. Urrezko ezteiak ospatzeko urriaren 8an elkartu ziren familia osoa; Lierniko ermitan izan zuten meza eta ondoren holakoetan egiten den bezala mahaiaren inguruan elkartu ziren.

Beste bikote batek ere ospatu ditu urrezko ezteiak gure herrian, Eugenio Rodriguez donostiarrak eta Pilar Azurmendi ataundarrak. Urriaren leian izan ziren hauek Mikel Goiaingerua Parrokian. Guztioi ere Zorionak.

Elizako erretila

Irailaren bukaera aldean hasi ziren parrokiko erretilarekin eta dagoeneko gailurrarekin bukatu dute. Ez da hau elizan egingo den aldaketa bakarra, barruan altarean dagoen pitzatua ere konponduko baitute.

Garaian garaikoa

Urte sasoi bakoitzean lan desberdinak izan ohi dira baserri munduan eta udazken aldean, urteko uzta jasotzeko garaia da eta aurtengoa oso oparoa sagarrari dagokionez behintzat. Gure arbasoen esanetan, lehendik ere bada nonbait sagar lekua gure he-

rria, gaur baino erosotasun gutxiago zegoela ere gurdikada pranko biltzen baizituzten astoak kargatu eta perietan saltzeko nahiz etxean bertan sagardoa egiteko. Egunotan ere hor ikusten da jendea sagastietan, sagarra biltzen.

Traste zaharren bilketa

Sasieta Mankomunitateak jakinarazi duenez, datozen hiruhilabeteetan traste zaharrak jasotzeko egunak honako hauek izango dira: urriaren 11a, azaroaren 8a eta abenduaren 13a. Gogoratu honetarako aldeztu aurretik 943161590 telefonora deitu behar dela, trasteak zein puntutan utzi behar diren esateko.

Heriotza

Urriaren 6an hil zen Errotatxo baserriko Jose Antonio Alustiza.

Iñaki Ugalde

II. gazte festa urriaren 21ean

Bihar jai egun handia izango dute herriko gazteek. Laz antolatutako lehen gazte festaren arrakasta ikusi ondoren aurten bigarrena antolatu eta egun hau ohitura bihurtzeko asmoz dabilta antolatzaileak.

Laz udalaren dirulaguntzarik ez zutela izan eta, maiatzaren 18tik 21era garagardo festa antolatu zuten. Han ateratako diruaren laguntzaz antolatu dute biharko festa. Udalak eskenatokia jarri du egun horretarako.

Egitaraua

10:00etan: Txupinazoa eta pregoia festari hasiera emateko. Bertan zurrakapotea zerbitzatuko da.

10:30ean: Herri jokoak. Pepino jokoa, sagar eta irin jokoa, nata jokoa eta beste batzuk.

12:30ean: Triki-bertso poteoa herrian zehar.

14:30ean: Bazkari herrikoa, aurretik txartela erosi dutenentzat.

Ondoren: Goierriko bertsolari gazteen saioa, abestiak eta Lazkaoko trikitilari gazteen saioa.

17:30ean: Herri guztian zehar Antzar Gazteak txarangarekin kalejira.

19:00etan: Rock kontzertua: Iraun (lazkaotarrak), Brigada Kriminal (lazkaotarrak) eta Señor No (donostiarrak).

23:00etan: Berbena goizalderarte, Drindots taldearekin.

Oharra: Lazkaoko talogileak ere bertan izango dira.

Ikasturte hasierako ekitaldia gaur liburutegian



Udal liburutegia astelehenetik ostegunera, 18:00etatik 20:00etara egoten da zabalik. Bertako arduraduna Miren Aranburu da.



Liburutegian eta udaletxe azpian burutuko dira kultura eta hezkuntza batzordeak antolatutako ekitaldiak.

Udal liburutegiaren ikasturte berriari hasiera emanez, gaur urriaren 20an, udaleko kultura eta hezkuntza batzordeak, liburutegian bertan eta udaletxe azpian burutuko diren zenbait ekitaldi antolatu ditu. Herri eskolakoak arratsaldeko 2,30etarako daude gonbidatuak, herritar guztiak, iluntzeko 7etarako.

Berrikuntzen artean, 'Lur' entziklopedi tematika, ordenagailua, inprimagailua eta liburutegia infor-

matizatze 'Absys' programa berezia ikusi ahal izango dira.

Nobedade hauetaz gain, 'Segurako jaiak' izenburupean Juan Angel Egaña herritarren argazki bilduma ere ikusi ahal izango da.

Ekitaldian bertan, udalak liburutegiaz eta kultur etxeaz dituen proiektu berriak azalduko dizkie herritarrei. Herriko txistulariak bertan izango dira eta bokadutxori ere ez da faltako.

Labur-labur

- **Euskal Girotze Barnetegia.** Irailean hasita, 8tik 11 urte bitarteko neska-mutikoak ari dira euskara lantzen eta hobetzen Aterpetxean. Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako 'D' ereduko ikastetxeetako haurrak astelehenetik ostiralera izaten dira. San Joanak aldera arte 1000ren bat pasako dira.
- **Egur tailaketako ikastaroa.** Udalak antolatuta 15 lagun hasi ziren pasa den astean, Jabier Arrieta zegamarraren ardurapean. Astelehenero, 19:00etatik 21:30era arituko dira txanbolinpen, 30 ordu osatu arte.
- **Udalak Jakoba Errekondo** kontratatu du, astean zenbait orduz, herriko turismo aholkulari modura aritzeko.
- **Santu Guztiak.** Datorren asteburutik hasita irekita egongo da kanposantua. Azaroaren 1ean, errosarioaren ondoren, 17:00etan izango da meza hilerrian. Azaroaren 2an, arimetako meza urte barruan hildakoen alde.
- **Nafarroa Oinez.** Urriaren 22an Zizurren. Elorri Kultur Elkartek autobusa antolatu du. Izen ematea Elorripen. Irteera goizeko 9etan plazan.
- **Kirol eskolarra.** Bihar, urriak 21 hasiko dute neska-mutikoek kirol denboraldia. Hurrengo alean informazio gehiago.
- **Telleriarren urteroko bazkaria** azaroaren 4an izango da Liernin.

Osasun hitzaldiak

Atsedeen Jubilatuen Elkartek antolatuta, adinekoen osasunari buruzko bi hitzaldi emango ditu Julian Bereziartua sendagileak.

Gaur, urriak 20, 19:00etan Kultur etxean. Gaia: Gaisotasun hereditarioak: diabetisa, hipertentsio arteriala eta kolesterola.

Urriaren 27an, 19:00etan Kultur etxean. Gaia: Neguko gaitzak: erreuma, artrosia, asma, etab.

Dominak odol emaleei

Bihar, urriak 21, Olaberriko udaletxean izango den ekitaldian, Gipuzkoako odol emaleen elkarteak Goierri bailarako zenbait odol emaileri dominak banatuko dizkie. Hoi en artean, 50 emanaldi eginak izateagatik Iñaki Telleria Lezetak urrezko domina jasoko du, 25 emanaldi egin izanagatik, berriz, Maite Alustiza eta Jose Antonio Martinezek. Ondoren afaria izango da Arrieta jatetxean.

'Baque' torneoa

Urriaren 11n hasita astearte eta asteazkeneko ari dira jokatzeko Baratzeko Pelotalekuan jubenilen mailako 'Baque' torneo eskualdeko pelota partiduak. Arratsaldeko 6,30etan hasita 3na partidu jokatzeko dira sarrera dohai-nik dela. Kanporaketa bidez jokatzeko ari den txapelketa honetan, Garikoitz Oiarbidek urriaren 24an jokatzeko du Tolosako Alduntzinen aurka.

Futbola

Aurreko asteko emaitzak: **Preferentea:** Segura 0-1 Anaitasuna. **Jubenilak:** Segura 3-1 Eibartarrak. **Kadeteak:** Ilintxa 1-16 Aizkorri. **Jubenilak:** Eibar 4-1 Aizkorri.

Asteburuan etxean: **Kadeteak:** Aizkorri-Urola, zapatuan 11:00etan. **Infantilak:** Aizkorri-Arrasate, igandean 11:00etan.

Joseba Telleria

Josu Aierbe berriro etxean



Aldizkaria bukatzen ari ginea jaso genuen berria: Josu Aierbe 'Txupi' aske utziko zutela urriaren 17an. Zazpi urte eta bi hilabete egin ditu gartzelan ordiziarrek.

Gipuzkoako artisauen erakustaldia

"Gabiltza" Gipuzkoako artisauen elkarteak bultzatuta Artisaualdiaren hirugarren edizioa ikusteko parada izango da asteburuan Majori Kiroldegian. Aurreko urteetan izandako arrakasta lekuko sektorearen erakusgai bilakatu da aipatu Ordiziako peri berezi hau eta antolatzaileen helburuak asetu nahi dituzte oraingoan ere. "Gabiltza" ar-

tisau Elkartearen helburuak artisautza sektorearen erregulazioa, artisautzaren sustapen eta hedapena, produktuen kalitatearen hobetzea eta merkatal guneak irekitzea lirateke eta horiek guztiak lortu nahian ezinbestekoa bilakatu da urriaren 20tik 22ra bitarteko asteburuan egingo den azoka hau.

Majorin Gipuzkoa eta Bizkaitik etorritako 50 artisautik gora elkartuko dira. Larrua, landare lehorrak, saskiak, pilotak, kandelak, egurrezko tailak, kupelak eta abar ikusteko aukera bikaina, beraz, astebururako. Bertarutakoek salneurrietan laguntzak izango dituzte, gainera. Barrenan ere izango dira artisautzari buruzko hainbat hitzaldi. Ikus 9. orria.

Santa Ana abesbatza Extremaduran

Trujilloko Udala eta Extremadurako Juntak egindako gonbitea aintzat hartu eta bertaratzea erabaki zuten Santa Ana abesbatzekoek joandako astebukaera luzean.

Udaletxean aldaketak

Azken plenuaren arabera EH taldearekin Gobernu hitzarmena hautsi ondoren, EHko ordezkariak Gobernu Batzordetik kanporatzea erabaki eta aldaketak egin dira hauen esku zeuden delegazioen arduretan. Gobernu Batzordeko kargutik kenduak izan dira EH alderdiko Julen Agirre eta Agustin Linazasoro eta hauen ordezkariak Jesus Mari Aldaz eta EAko Guzman Vazquez ipini dira.

Sustapena eta Garapena delegazioko buru zen EHko Agustin Linazasoro kendu eta honen ordezkariak Jesus Mari Aldaz ipini dute. Hezkuntza eta Euskara delegaziotik EHko Julen Agirre kendu eta Euskara alde batera utzi dute hemendik aurrera delegazioa Hezkuntza izenarekin bakarrik geratuaz. Honen arduradun berria EAko Guzman Vazquez izango da eta euskararekin zerikusia duten gaiak beregain hartuko ditu Alkatetzak. Azkenik Kultura eta Jaialdiak delegazioan EHko Bittor Miloren ordezkariak Mikel Iturrioz arituko da.

Azkenik Herri Antzokiko eta San Jose Egoitzako ardura EAko Joxe Arizmendiren eskutan geratu da, Goimenekoa EAko Jesus Mari Aldazen eskutan eta Urdaneta ikastetxeko eskola kontseilulokoa EAko Guzman Vazquezen eskutan.

Amaitzeko aipatu orain arte PSE-EE alderdiko bigarrena zen Aitor Perlinesek utzi egin duela bere zinegotzi kargua udaletxean. Laneko arrazoiek eta arrazoi pertsonalek bultzatu dute erabaki hau hartzera.

Helburua, bertako herriak ezagutzeaz gain, kontzertua ematea zen eta esan modu onez bete dituztela aipatu helburuok.

Muslari mundialak

Pepe Caballero eta Enrique Arce ordiziarrek hor ibili dira Donostian jokatu den Munduko Mus Txapelketan azken momenturarte txapela lortzeko aukerarekin. Azkenean ez da horrela izan baina

gustura ibili da bikote ordiziarra txapelketan. azeri zaharrak dira biak ere Euskal Herrian hain errotua dagoen karta jokoan eta aipatu ohikoa dela bikote hau Munduko Txapelketan ikustea, beti ere maila altuan utziaz Ordizia herriaren izena. Ea hurrengoan zorte hobea duten eta hain preziatua den txapela burugaineratzeko parada izaten duten.

Aitor Calvillo



MUJICA
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19
☎ 943 88 11 94
ORDIZIA



Suquia

**SUKALDEKO
ALTZARIAK
ELEKTRAGAILUAK**

ERAKUSKETA:
☎ 943 88 23 00
Kale Nagusia, 10
ORDIZIA



Igandean arraza autoktonoen erakusketa

Datorren igandean, urriak 22, lehenengo aldiz, Ormaiztegin, Euskal Herriko arraza autoktonoen erakusketa ospatuko da. Gure herriko zelai eta Zubipe kiroldegi inguruan Euskal Herriko berezko arrazak diren abereak bertatik ikusteko aukera izango da. Bertan parte hartuko duten abereak hauek izango dira: betizu, terreña eta pirenaika; pottokak; euskal oiloa; ardietan, sasiardiak, mutur gorriak edo latxak, eta

mutur beltzak; eta ahuntz azpi gorriak; euskal ardi txakurretan, iletsua, Gorbeiakoa eta Villano txakurra; Ormaiztegio karramarroa; euskal txerria eta euskal erlea.

GOIERRITARRA aldizkari 12-13 orrietan duzue informazio gehiago.

Iganderako antolatutako egitaraua hauxe duzue:

10:00etan: Euskal Herriko arraza autoktonoen erakusketaren irekitze ofiziala.



10:00etatik 14:30era: Erakusketarako egokituriko gune berezietan abere autoktonoez osatutako erakusketa bisitagai izango da. Gune bakoitzean megafoniaren bitartez elkartekideek abereei buruzko argibide zuzenak emango dizkie ikusleei.

10:00etatik 14:30era: Zubipe kiroldegian abere autoktonoei buruz eginiko bideoaren aurkezpena eta argazki erakusketa bisitagai izango dira.

Goizean zehar pottoken lehiaketa morfologikoa izango da.

12:30ean: Hipika erakustaldia.

13:30etik 14:30era: Herriko Txindata Musika eskolako trikitilari gaztetxoek kalejira herriko kaleetan zehar, erakusketa guneetan ere giroa alaituz.

14:30ean: Partaideentzat bazkaria.

Aitziber Murua



Urrian kultura ugari

Yartu Kultur elkarteak, Udaren babesaz, kultura astea antolatu du urriaren 2. hamabostaldirako. Urriaren 17an hasi zen kultura astea, Abiadura Handiko Trenari buruzko hitzaldiarekin. Atzo, urriak 19, herriko mendizaleen, Koke Lasa eta Juanjo Aranbururen, jarduna izan zen. Dena den, urriaren 29a bitartean, bada herrian zer ikusi eta zertaz gozatua. Yartu Kultur elkartekoek, antolatutako ekintzetan parte hartzeraz gonbidatzen zaituzte.

Urriak 20, ostirala:

Herriko bi idazleren lanak eta sekretuak: Antxiñe Mendizabalen 'II. Errepublikaren Urretxu eta Zumarragan'; eta Iñaki Mendigurenen 'Haltzak badu bihotzik Ilunkera xuxurlak'. Arratsaldeko 8etan, Santa Luziako Kultur etxean.

Urriak 21, larunbata:

Umeen jaia: jolas zaharrak, kanpoko eta herriko ipuin-kontalariak... merienda... Santa Luziako Kultur etxean, arratsaldeko 4etatik aurrera.

Zeramika erakusketa

Kultur asteak irauten duen bitartean, herrikoek azken urteotan egindako zeramika-lanak eta Eup aldizkaria ikusgai izango dira, Santa Luziako kultur etxeko erakusketan. Ordutegia: astelehen, asteazken eta ostiral arratsalde, 6etatik 9etara; larunbat goizez, 10etatik 1era; eta igande goizez, 12etatik 2etara.

Urriak 26, osteguna:

Joxean Mujika beasaindarren eskutik, Mandubi Zelai eta Murumendi inguruko trikuharriei buruzko hitzaldia, diapositibekin lagunduta. Santa Luziako Kultur etxean, arratsaldeko 8etan.

Urriak 27, ostirala:

Beasaingo Errail antzerki taldearen emanaldia: 'Hitz egin dezagun sexuaz' antzezlan. Santa Luziako Kultur etxean, 20:00etan.

Urriak 28, larunbata:

Itsason, 20:00etan, herri afaria izango da, kantuak alaiturik. Menua: taloak, gaztainak, sagardoa... eta abestiak! Afarira joateko urriaren 22a baino lehen eman behar zaio izena Miren Iturrallderi, liburutegiko orduetan. Telefonoa: 943723525.

Urriak 29, igandea:

Erretiratuen eguna.

Pako 20 urtez gartzelan

Dagoeneko hogeit hamar urte daratza Pako Eskitxabel legorretar presoak espetxeratuta. Horregatik urtemuga hau ere era berezi batean gogoratze-ko urriaren 6an omenaldia egin zitzaion herri pilotalekuan.

Pakok 1995. urtean zigorraren hiru laurdenak bete zituen arren, oraindik gartzelan dirau. Hogeit hamar urte hauetan

espetxe askotan egon da eta gaur egun Asturiasko Villabonan daukate.

Omenaldian hainbat ekin-tza egin ziren Pakoren ome-nez. Hala nola, txalaparta, dantza, trikitilariak... Beste-ak beste, senitarteko eta la-gunek Pakori hitz batzuk es-kaini zizkioten, ondoren fa-miliak hainbat oroigarri jaso zituelarik.

Kultur astea

Urriaren 25etik azaroaren 4a bitartean, kultur astea ospa-tuko dugu herrian. Era eta adin guztientzako ekitaldiak antolatu ditu Udalak.

Urriak 25, asteazkena:

17:00etan: Txan Magoaren emanaldia Herri Zineman.

18:30ean: Buruhandiak.

19:00etan: Hitzaldia: 'He- rentziak. Testamentuak' He- rri Zineman. Hizlaria: Luis Barrinagarramenteria.

Urriak 26, osteguna:

16:00etan: Hitzaldia Ugaro Herri Ikastetxean: 'Autoesti- ma'. Hizlaria: Amaia Vaz- quez.

17:00etan: Tirolinak, puen- ting eta eskalada herrikoia Udal pilotalekuan.

19:00etan: Hitzaldia: 'Eli- kadura eta osasuna' Herri Zi- neman. Hizlaria: Julian Be- reziartua.

Urriak 27, ostirala:

16:30ean: Pote, igel eta toka txapelketa jubilatuentzat.

17:00etan: Eskulan ikasta- roko ikasleen lanen erakus-

ketaren irekiera Kultur etxe- an.

17:00etan: Arrate Leunda ipuin kontalaria liburutegian, 5-8 urteko gaztetxoentzat.

18:00etan: Buruhandiak.

23:00etan: Legorretako VI. Mus txapelketa Bilkoin K.K.E.-en.

Urriak 28, larunbata:

18:00etan: Haurrentzako jaialdia Udal pilotalekuan.

20:00etan: Ainhua Garmen- dia sopranoaren musika ema- naldia Salvador deunaren pa- rrokian.

Urriak 29, igandea:

11:00etatik 14:30era: Gi- puzkoako artisautza feria, trikitilariak alaitua.

13:00etan: Buruhandiak eta herriko dantzariak.

14:00etan: Eskulan ikasta- roko ikasleen lanen erakus- ketaren amaiera.

Azaroak 4, larunbata:

20:00etan: Alegia eta Altsa- suko Orkestraren musika emanaldia Salvador deuna- ren parrokian.



Ugare Herri ikastetxea: 'Eskola ibiltari'

Eskola Ibiltaria, "gelaz kanpo ikasten jarraitzeko" errekur- tsoa da, Autonomia Erkigeo ezberdinak ikusiaz eta berauen ezaugarri propioak ikasleek ezagutzeko laguntza eskainiaz, Bidetza jakin baten jarraitzearen bidez.

Hezkuntza Ministeritzak Eskola Ibiltarien programan par- te hartzeko deialdiak egiten ditu, Eskola bakoitzetik joaten direnak 15 ikasle eta irakasle bat izatea baldintza nahitaezkoa izanik.

Programa honetan partaidetza hartu ahal izateko proiektu bat aurkeztea beharrezkoa da. Ugare Ikastetxeak aurreko bi ikastaroetako esperientziak, Salamankakoa eta Aragoikoa hain zuzen ere, oso baikorak ikusi zituenek, oraingoan ere saiatzea pentsatu zuen.

Proiektuak baloratu ondoren, Ugare Herri ikastetxeak baiezkotzea jaso du eta datorren astean, urriaren 31tik azaroaren 6ra, 6. mailako 10 ikasle eta 5. mailako 5 (azken hauek, zoz- ketaz hautatuak, 15eko kupoa osatu arte) eta beraien gainbe- giratzaile izango den Kati Urretabizkaia andereñoa, Bartzelo- nara joango dira.

Aste horretan beste bi Autonomia Erkidego, Andaluziako- ak (Malagako Eskola Publikoa) eta Gaztela Mantxakoak (To- ledoko eskola publiko bat) izango dira beraiekin elkarbizitza egingo dutenak. Bakoitzetik 14 ikasle joango dira.

Bidetza horretan jasoko dituzten ezagutzen laburpena hau- xe da: nekazal eraldatze industria, ardandegi batzuetara bisi- ta; Nuria haranera eta bere inguruetako bisita; Iberoek bide- tza; Bartzelonako Olinpikoko instalazioak; Hiria eta bere mo- numentuak; historia, artea, ohiturak, leku esanguratsuak, etab.; Generalitateko Palaua; Famili Sakratua; Güel parkea; La Rambla; harresiak; metroa; zoologikoa; museoak eta por- tua.

Ikusi eta ikasitako guztiarekin hainbat lan burutzea eska- tuko zaie ikasle hauei, bai egun horietan eta baita ere, ondo- renean.

Inko Mujika - Leire Oiarbide

Zinea

Urriak 22: 'Alicia y el espejo magico'.

Urriak 26: 'Notting Hill'.

Urriak 29: 'Los teleñecos en el espacio'.

Azaroak 2: 'Eyes wide shut'.



Segundo Aranbururentzat bolatako txapelketa

Lehengo larunbatean jokatu zen VII. Osinalde Bola Txapelketan herritar bat izan zen garaile, Segundo Aranburu. Arratsaldean izan zen tiraketa, eta Gipuzkoa osoko 50 bat bolari bertaratu ziren jarritako sariak eramateko asmoz. Lehenbiziko aldia da lehia-keta honetako txapela Gabirian gelditzen dena.

Probakoan huts egin arren, sei botaldi kontagariak egin ostean herriko aguazilak 37 birla bota zituen, beste inork berdintzea lortu ez zuen marka. Aipatzeko beste kontu bat ere egin zuen: bola bakarrean zortzi birla lurreratu zituen,

oso gutxitan ikusten dena berau.

Segundoren atzetik, Zeferrino Agirre, Nikolas Igartza-bal, Joxe M. Mujika (hirurak 35na jota) eta Jesus Lasa (34rekin) gelditu ziren, orden horretan. Lehen lauretan hiru herritarrek sartzea lortu zuten, beraz.

Gazteen kategorian Josu Lazkano geratu zen lehenengo, jarraian Oier Oiarbide eta Andoni Berasategi zituela.

Gripearen aurkako kanpaina

Urriaren amaiera arte dago gripearen aurkako txertoa



Jubilatuaren egun handia

Udazkeneko egin ohi den bezala, urriaren 8an zuten herriko erretiratu guztiek elkarrekin eguna pasatzeko aitzakia. Eguerdiko mezatik irten eta dantzari gaztetxoek saioa eskaini zieten. Bazkaria Ostaturun egin zuten, 60ren bat lagunek. Bazkalondoan trikitixa eskolakoek gozatu zizkieten belarriak. Aurten opariak argazkietna ageri diren Azkartzako Mikaelari eta Igeribar Garako Juliani eman dizkiote.

hartzeko epea. Herriko kontsultara asteazkenetan joan daiteke, 12etatik ordubatera, eta gainontzeko egunetan Ezkioko osasun-etxera jo beharko da.

Belar-bolen plastikoen bilketa

Kamiñokutzan, Kortzu-azpiko autobus geraldian eta Etxeberringo zubian markatuta daude guneak. Dagoeneko hasiak dira, eta hileko 3. asteartean bilduko dira (bezperan atera behar dira, astelehenetan), honako egunetan: azaroaren 21ean eta abenduaren 19an. Datorren urtekoak: urtarrilak 16, otsailak 20, martxoak 20, apirilak 17 eta maiatzak 15.

Oroitz Munduko Kopara

Iaz Arrasateko akordeoi saria irabazi izanak aurreko Jugoslavian jokatu den Munduko Kopan esku hartzeko gonbidapen paregabea eskaini dio Oroitz Maizi, eta xede horrekin joango da urriaren azken astean Kragujevac hirira. Irungo beste bi soinu-jole eta bera joango dira, estatuko bakarrik, estatu bakoitzak partehartzaile kopuru mugatu bat bidali baitezake bakarrik. Prestakuntza modura gaur, hilak 20, kontzertua ematekotan da Gasteizen.

Aimar Maiz

LEJAB
KRISTALDEGIA



ERAKUSKETA:

Ezkiaga Pasealekua z/g ☎ 943 88 88 24

BILTEGIA:

Salbatore Industrialdea ☎ 943 88 60 70

BEASAIN

KONTSULTORIO MEDIKU-KIRURGIKOA

Goierritarrentzako mediku zerbitzu espezializatuak

Ordua eskatzeko tfnoak: 943 88 57 50 - 943 88 57 54

Nafarroa Etorbidea, 25 - 2.

BEASAIN

Udazken kulturala abian

Datorren asteen, urriaren 24an emango zaio hasiera aurtengo Udazken Kulturalari. Azaroaren 12a bitarte egitarau zabala prestatu da. Ondorengo ekitaldiak dira nagusienak.

Lehiaketak

- **Jendaurreko IX. Margo Sariketa:** Urriak 29. Antolatzailea: Arrano Kultur Elkartea. Gaia, Beasaingo herria eta bere auzoak izango du eta edonork har dezake parte. Goizeko 9etan zabalduko da mihi-seak zigilatzeke epea eta 13:30erako aurkeztu beharko dira lanak Usurbe Antzokiko Erakusketa Aretoan. Sari banaketa 18:30ean egingo da.
- **Argazkigintzako IX. Rallya :** Urriak 29. Antolatzailea: Argizpi Argazkizale Elkartea. Lanbidez argazkilariak ez diren zaletu guztiek har dezakete parte. Gaiak zozketaz banatuko dira izenematean bertan.

Musika

- Tolosako abesbatz lehiaketara aurkeztuko den Dinamarkako 'Lille Muko' taldearen kontzertua **Urriaren 30ean** 20:30etan Parrokian.
- Aitor Furundarena eta Urbil Artolaren emanaldia. **Azaroaren 3an** Udaletxe-ko Batzarre Aretoan.
- Euskadiko orkestrako Daxa boskotearen kontzertu didaktikoa ipuina kontatuz **5ean**, Antzokian.

Dantza

- **Euskal dantzen jaialdia** egingo da **azaroaren 4an** Aurtzaka dantzataldeak antolatuta Usurbe Antzokian, 19:00etan.

Haurrentzako ekitaldiak

- **'Igartz' haurrentzako parkea.** Urriak 28. Goizeko 11:00etatik 14:00etara eta arratsalde, 16:00etatik 18:30era Igartzako parkean. Euria egingenez gero, Loinazko San Martin plazan.
- **Txotxongilo ikuskizuna.** Urriak 31. Bihar taldeak, 'lagunekin baratzean' ikuskizuna eskainiko du Usurbe Antzokian 10:30etan. Sarrera 350 pta kostako da.
- **Tailerrak eta jokoak.** Azaroak 5. Txilibutxof taldeak antolatuta, Joan Iturralde plazan antolatuko dira haurrentzako joko ezberdinak 18:00etan hasita.

Ikastaroak

- **Risoterapia** tailerra azaroaren 7an izango da 19:00etatik 21:00etara. Plaza kopuru mugatua izango du. Izenemateak urriaren 31tik aurrera Udaleko Kultura sailean.
- **Osasuna eta elikadura** ikastaroa azaroaren 3an hasiko da, Urbietako arte plastikoetako zentruan.

Nekane Altuna



Igartzaren inguruko argitalpenak

Molinum aldizkariaren 8. alea kaleratuko da urriaren 25ean 19:00etan. Oraingoan artikulu gehienak Igartzako errotaren ingurukoak izango dira besteak beste. Josetxo Zufiaurrek, Beasain inguruan egin daitezkeen zazpi ibilbideren deskribapena ere erakutsiko digu. Ibilbide hauek hemendik gutxira seinalizatuak izango dira.

Beasaingo Paperak bildumaren 8. alea azaroaren 6an aurkeztuko da Usurbe Antzokian 19:30etan. Igartzako Monumentu-Multzoaren historia erakutsiko zaigu batez ere.

Bisita Gidatuak: Igartzako Monumentu-Multzoa ezagutzeko aukera izango da antolatu duten bisita gidatuen bidez. Diaporamen bidez erakutsiko zaigu Beasaingo historia eta errotagintzaren inguruko erakusketa ikusteko aukera ere izango da, urriak 28, 29, azaroak 1, 4, 5, 11 eta 12an. Goizez 11etan eta 12:30etan eta arratsalde, 17:00etan eta 18:30etan izango dira bisitak.

Odolkiaren festa azaroaren 4an

XVI. Odolki lehiaketa ospatuko da egun honetan. Jatetxeetako pertsona ezagunez eta Beasaingo Odolki kofradiaren bazkideek osatuko dute epaimahaia. Goierri, Tolosalde eta Urola Garaiko harakin guztiek izango dute parte hartzeko aukera. Sari bakarra banatuko da: 25.000 pezeta eta zeramikazko platera. Eta ohitura moduan, irabazleak, otsailaren 5ean, Loinazko San Martin egunean egiten den Kofradiaren urteroko bazkarirako odolkiak prestatu beharko ditu. Gogoratu, Isabel Imaz izan zela iaz "Odolkien errege".

Odolkiak lehiaketara aurkezteaz gain, herritarrek odolkiak dastatzeko aukera ere izango dute. Antolatzaileek odolki pintxoak eta edaria saltzen jarriko baitituzte. Egurdiko 12etan emango zaio hasiera.

Bertako produktuen peria

Bertako produktuen peria egingo da egun berean Loinazko San Martin plazan. Bertako produktuekin egingo den azoka berezi honetan, Euskal Herriko hainbat produktu erosi ahal izango dira, goizeko 10etatik aurrera egongo diren postu ezberdinetan.

Goierri osorako Eguneko Zentroa



Idiazabalen, ehun biztanletik hamazazpik, 65 urte baino gehiago du eta kopurua handiagotu egingo da datozen urteetan. Horiei guztiei eta oro har idiazabaldarrei zuzenduta gune berria izango da Pilar-Enean. Bihar, urriak 21, inauguratuko da Eguneko Zentrua, Babestutako Etxebizitza, Jubilatuen Elkarte eta Taberna biltzen dituen eraikina. Udalak, duela 12 urte Pilar-Enea eskuratu zuenean aurreikusitako proiektua, honenbestez bukatuta dago. 107 milioi pezeta inbertitu dira eraikina berritu eta aurrerantzean eskainiko dituen zerbitzuak egokitze-ko. Udalak ordaindu du proiektuaren % 80, Diputazioak eta Eusko Jaurlaritzak gainontzekoa.

Eguneko Zentrua

Pilar-Eneak, 12 pertsonentzako Eguneko Zentrua du. Goierri zabalduetako bigarrena da, bestea Beasainen dago, eta eskualde osoko pertsonak hartuko dituen lehendabizikoa. Izan ere, herri-

tarren eskaria beteta, lekua egonez gero, inguruko herrietako jendea ere onartuko da. 60 urtetik gora izan eta alboan zaintzailea behar duten pertsonen zuzendutako zerbitzua da Eguneko Zentrua. Astelehenetik ostiralera egongo da zabalik 9:30etik 18:30era. Adineko pertsonen, eta beraien senitartekoen laguntzea da zerbitzuaren helburua. Pilar-Eneako Eguneko Zentruak, baina geriatrikoa, eskulan eta ariketa fisikoetarako gela, jangela eta atsedena gela ditu besteak beste. Interesa duten herritarrek eta goierritarrek, udaltxeko Gizarte Laguntzailearen bidez egin dezakete Eguneko Zentruarako eskaria (943187100 edota 943187123 telefonotara deituz).

Eguneko Zentruak 2 lan-

Zirika Irratia

Urriaren 21ean, larunbata, hasiko du ikasturtea Zirika Irratiak. Aurrekoetan bezala larunbatero, 13:00etatik 15:00ak bitartean entzun ahal izango dira herriko eta inguruko kontuak F.M.-ko 99,3an.

Hego Euskal Herriko gazta txapelketa urriaren 29an

Duela lau urte bezala, aurten ere Hego Euskal Herriko gazta txapelketa jokatu da urriaren 29an Idiazabalen. Urtero lurralde ezberdinean jokatzen da eta Gipuzkoari tokatzen zaionean, Artzai Gaztakoek, Idiazabalen antolatzea dute helburu.

Probintzia bakoitzetik 10na artzain etorriko dira, herrialdeetako txapelketetan sailkatutako lehenengo 10ak. Latxa ardiaren esnearekin egindako gazta txapelketa izaten da eta nekazarien Gizarte Aseguruan alta eman dagoela ziurtatu behar du artzainak. 6 goierritar izango dira lehian: Olaberriako Mikel Etxezarreta, Zeraingo M. Angeles Iñurrategi, Segurako Karmele Murua, Zaldibiako Inaxio Irastorza, Ordiziako Matias Arsuaga eta Gabiriako Amelia Jauregi. 145.000, 85.000, 60.000, 35.000 eta 20.000 pezetako sariak banatuko dira, garaikurrekin batera.

Lehiaketaz gain, gazta dastatzeko aukera ere izango da plaza inguruan izango diren postuetan. Udalak, sagardoa, ardoa eta txakolina jarriko du. Trikitilari doinuak ere izango dira giroa alaituz. Gazta egiten ere jardungo dira. Era zaharrean, Luis Katarain arituko da eta era berrian, Gorka Legorburu.

postu sortu ditu. Une honetan, 3 herritarren artean ari dira postu horiei dagokien lana betetzen. Hemendik sei hilabetera, Udalak lehiaketa publikora aterako du zerbitzua.

Jubilatuen egoitza

Herriko jubilatuak ere Pilar-Enean izango dute aurrerantzean beraien egoitza. Elkarre modura antolatuta egongo da. Bazkide bakoitzak elkarreko giltza bana izango du. Gizarte Ongizate Batzordearen helburua, Jubilatuen, herriko beste elkarten pareko izatea da. Horretarako sukalde propioa izango du, bazkideek, eta hauekin joandakoek erabili ahal izateko. Jubilatuen elkarteak bi sarre-za izango ditu, bata kanpoaldetik eta bestea tabernatik.

Pilar-Eneako taberna, idiazabaldar guztiei irekitako taberna izango da. Adin guztietako herritarrentzako Udalak jarritako zerbitzua da. Jubilatuek, prezio merkeagoak izango dituzten arren, nahi duen guztiak du bertan egoteko aukera.

Bestelakoak

Aurreko zerbitzuez gain, Etxebizitza babestua ere badago Pilar-Enean. Egoera berezietan erabili ahal izango da. Eraikinaren ganbara ere egokitua da. Erakusketa, hitzaldi eta bestelako ekitaldiak antolatzeke erabiliko da ganbara. Pilar-Enea, hirugarren adinekoek bakarrik ez, herritar guztiek erabiltzea da Udaren helburua.

Inaugurazio ekitaldia bihar, urriak 21, eguerdiko 12etan izango da. Zinta moztu eta eraikina bedeinkatu ondoren, bertara joandako guztientzat luntxa izango da.

Xabier Urteaga



Hizkuntzak ikasteko aukera

Tolosako Elduaien akademiak herrian bertan hizkuntza irakasteko aukera luzatu du. Ingelera, alemaniera, frantsesa eta euskarako klaseak eskaini dituzte. Horretarako 7 pertsonako taldeak osatu behar dira. Astean 2 ordu izango dira eta hilabetero 4.800 pztta ordaindu beharko duelarik ikasle bakoitzak. Izena honako telefono honetan eman behar da: 943 674733. (Kristina/ Magda).

Jubilatuen txangoa

Urriko azken astelehenean Gernikan feri garrantzitsua egin ohi da eta aurten bertara egingo dute txangoa. Izene-matea: Urriaren 23an, arratsaldeko 17:00etatik 19:00etara. Kostua: 2.400 + autobusa. Esan, izena oraingoan, egun bakarrean jasoko dela eta 57 plaza izango direla.

'Colmillo blanco' filmea

Urriak 22, 'Colmillo blanco' filmea botako da Kultur etxe-

ko bideo gelan Guraso Elkartearen eskutik 17:00etan.

Erakusketa

Urriaren 17tik 23ra Udala eta Aitxuri Herri eskolak elkarlanean antolaturik, "Itsasertza"ri buruzko erakusketa izango da Aitxuri Herri Eskolan. Orduetgia: astegunetan, 16:00tik 17:00ra eta larunbatean 18:00etatik 20:00etara eta igandean 12:00etatik 14:00etara.

Kontzertua

Urriaren 21ean San Martin parrokan, kontzertua izango da 20:00etan, Pasaia, Ilunbe gaztea eta Orkatz abesbatzen eskutik.

Mendi-irteera

Amezti Mendi Elkartearekin, urriaren 22an, Iparraldera izango da mendi-irteera: Bidarraitik Iparlara. Irteera, goizeko 7etan, plazatik. Mikel Zabaletari eman behar zaio izena.

San Martin azoka

San Martin inguruan hainbat ekintza antolatu ditu Udalak:

Azaroak 6: 19:30ean hitzaldia, udaletxean. Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskutik, baserriaren eskualdatze edota oinordetkari buruz Gipuzkoan indarrean jarri berri den lege berriari buruz. Hizlariak: Ibai Lertxundi Iribar eta Iñaki Mendia Barriola.

Azaroak 8: 19:30ean, gazta dastaketa ikastaroa. Hizlaria: Jose Ramon Agiriano. Idiazabal Gaztaren Komiteko partaidea.

Azaroak 9: 19:30ean, ardo dastaketa ikastaroa. Hizlaria, Jorge Ponente injeinerua. Parisko Unibertsitatean Diplomatu. Ardo Dastaketako irakaslea. Ondoren afaria.

Bi dastaketa ikastaroetan eta afarian parte hartzeko ezinbestekoa izango da Udaletxean izena ematea azaroaren 3 aurretik. Kata ikastaro bakoitza 500 pztta kostatuko da eta azaroaren 9an egingo den afarian parte hartu nahi bada beste 2.500 pztta kostatuko da.

Azaroak 10: Profesionalen pilota partidak, 22:30ean: Lau t'erdiko txapelketa: Goñi I- Elkorro/Goñi IIIren aurka (bi hauetako irabazlearen kontra) eta Titin III-Zezeaga Etxaniz-Lasa III.aren aurka.

Azaroak 11, San Martin eguna: Aurten ere, ganadu lehiaketa, Urbia eta Aizkorriko artzainen arteko 2. Gazta Lehiaketa eta artisauen erakusketa, buruhandundiak, eta herritarren arteko pilota partiduak izango ditugu.

Azaroak 12: IX. DV.ETB pilota torneo: 1.partida: Infantiletan, Izagirre-Prado Errea-Gurrutxa/Berasaluze-Arrieta (bikote irabazlearen aurka).2. partida: Senior mailan, Mikel-Zabal Amarika-Urberuaga/Matute Laskurai (bikote irabazlearen aurka). Arratsaldeko 17:00etan, Zegamako Guraso Elkartek eta Zegamako Udalak antolaturik Kukubiltxoren Txirrikiz emankizuna izango da Udal Pilotalekuan, ondoren, txokolate beroa bertaratu guztientzat.

Edurne Albizu



Ardiki eguna urriaren 29an

Goizeko 10:30etan: Tobera, trikitixa, txistulariak, albokariak, dultzaineroak

Goizeko 11etan: Artisautza erakusketa: gazta eta mondejuak egiten, inurriarekin teilatua egiten.

Goizean zehar, ganadu erakusketa izango da: ardi eta ahari taldeak, pottokak, behorrak.

12:00etan, VII. Mondeju eta VI.Gazta lehiaketen hasiera

Resti pilotalekuan, Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso bertsolariekin batera.

Aldi berean, mondeju pin-txoak salgai jarriko dira.

Lehiaketa hasi eta gero, Antzinako Aralarko artzainen jokoak: Pilota, Saltaarrie, Probaarrie, Puxtarri jolasa.

14:30etan, bazkaria: mondejua, ardikia piparrekin, ardikia saltsan, gazta, ardoa, kafea, pattarra eta purua.

Oharra: Bazkarirako txartelak salgai: Zaldibiako tabernetan, eta 160338 telefonon. Prezioa: 2.200,-pta.

Bazkalondorenetik gaueko 9ak arte: bertsolariak, trikitalariak..

Mondejuaren VII. Lehiaketa

Zaldibiako mondeju lehiaketan mondeju zuria egiten dakien edonork har dezake parte. Urriaren 26a baino lehen eman behar da izena 943 160338 telefonora deituz, astelehenetik ostiralera, 12:00etatik 19:30etara.

Parte hartzaile bakoitzak

5 kana ekarri behar ditu lehenengo egosialdia emanda. Bertako produktuekin eginak izan behar dute. Mondejuak, beren salda eta guzti, urriaren 29an goizeko 10etarako eraman behar dira Resti pilotalekura. Sariak: 1. 50.000 pta. eta txapela; 2. 35.000 pta.; 3. 20.000 pta.

Aralarko gazta txapelketa

Artzantza lanbide duten Aralarko artzainek har dezakete parte. Izen ematea, egun berean egin behar da. 3 sari izango dira: 1. 50.000 pta. eta txapela; 2. 35.000 pta.; 3. 20.000 pta.

ZINEA

goieniz

GOIENIZ:

Urriak 26, 'El viento nos llevará', 21:00etan, Usurbe Antzokian.

Azaroak 2, 'Buffalo 66', 21:00etan, Usurbe Antzokian.

LEGORRETA:

Urriak 22, 'Alicia y el espejo magico', 20:30etan, Herri zineman.

Urriak 26, 'Notting Hill', 20:30etan, Herri zineman.

Urriak 29, 'Los Teleñecos en el espacio', 20:30etan, Herri zineman.

Azaroak 2, 'Eyes Wide Shut', 20:30etan, Herri zineman.

ORDIZIA:

'Frequency'.

Ostirala 20: 22:15

Larunbata 21: 22:15

Igandea 22: 19:30 - 22:15

Astelehena 23: 19:30-

22:15

'Spersky'.

Igandea 22: 16:45



'El viento nos llevará'
Abbas Kiarostami
(FRA-IRA, 1999)

Giza talde bat Teheranetik Siah Darehra iristen da, Kurdistan iraniarreko urruneko herrialde batera. Dirudienez, talde zinematografikoa, ingeniarienez, abenturazalez edo bertako biztanleek pentsatzen duten bezala altxor bilatzaileez... osaturiko talde bat da.

'El viento nos llevará' ez da kondatze zinea, beste gauza bat da. Ez da kontakizun zinea, poema zinea da. Ez da argudio zinea, forma zinea da. Ez dago tramarik, intrigarik, dramarik edo ekintzarik: Kontuz! filme eder honek ez ditu kontsumo zineko arauak betetzen eta asper zaitzake... arretaz ibili! Gaur egun gailentzen ari den zine zakar eta erdian, Kiarostamik erabat modernoa den lan honetan, garai bateko zinemaren erabateko garbitasuna ere islatzen jakin du.

musika

BEASAIN:

Urriak 30, Dinamarkako 'Lille Muko' abesbatzaren kontzertua, Andra Mari elizan, 20:30etan.

Azaroak 3, Aitor Furundarena eta Urbil Artolaren midi sistemaren aurkezpena, Udaletxeko Batzar aretoan, 20:00etan.

Azaroak 5, Euskadiko Orkestrako Daxa boskotearen kontzertu didaktikoa ipuina kontatuz, Usurbe Antzokian, 12:00etan. Sarrera: 500 pezeta.



LEGORRETA:

Urriak 28, Ainhoa Garmendia sopranoaren musika emanaldia, Salvador Deunaren parrokian, 20:00etan.

Azaroak 4, Alegia eta Altsasuko akordeoi orkestraren musika emanaldia, Salvador Deunaren parrokian, 20:00etan.

ORDIZIA:

Urriak 26, Tokioko Abets taldearen kontzertua, Eliz Parrokian, 20:00etan.

Urriak 29, Osloko 'Baerum Vokalensemble' ren kontzertua, 20:00etan, Eliz Parrokian

antzerkia

BEASAIN:

Urriak 27, Ordiziako Urrup antzerki taldearen 'Batzarra emakumeena' lana, Usurbe antzokian, 20:30etan.

EZKIO-ITSASO:

Urriak 27, Beasaingo Errail taldearen 'Hitz egin dezagun sexuaz' antzez-lana, 20:00etan, Santa Luzia-ko Kultur etxean.

dantza

BEASAIN:

Azaroak 4, Aurtzaka dantza taldearen euskal dantzen jaialdia, Usurbe Antzokian, 19:00etan.

bestelakoak

BEASAIN:

Urriak 31, Bihar taldearen 'Laguneko baratzean' txotxongilo ikuskizuna, Usurbe Antzokian, 10:30etan. Sarrea: 350 pta.

diapositibak

BEASAIN:

Urriak 27, Joxe Ramon Agirre 'Marron' en 'Bidaia nire erraietara: Nepal' diapositiba emanaldia, Aizkorri Mendizale elkartearen, 20:00etan.

hitzaldiak

EZKIO-ITSASO:

Urriak 20, Tertulia: Antxiñe Mendizabalen 'II. Errepublika Urretxu eta Zumarragan' eta Iñaki Mendigurenen 'Haltzak badi bihotzik, Ilunkerako xuxurlak' liburuen inguruan. Santa Luziako Kultur etxean, 20:00etan.

Urriak 26, Mandubi zelai eta Murumendi inguruko trikuharriei buruzko diapositiba-hitzaldia, Joxean Mujikaren eskutik, 20:00etan, Santa Luziako Kultur etxean.

LEGORRETA:

Urriak 25, 'Herentziak. Testamentuak', Luis Barri-nagarrementeriaren eskutik, 19:00etan, Herri zine-man.

Urriak 26, 'Autoestima', Amaia Vazquezzen eskutik, 16:00etan, Ugara herri ikastetxean.

Urriak 26, 'Elikadura eta osasuna', Julian Bereziartuaren eskutik, Herri Zine-man, 19:00etan.

erakusketak

BEASAIN:

Urriaren 22ra arte, Ana Maria Perez Morenoren eskultura erakusketa, Usurbe antzokian.

Urriaren 29tik azaroaren 12ra arte, IX. Aire zabaleko pintura lehiaketara aurkeztutako lanen erakusketa, Usurbe antzokian.

Urriaren eta azaroaren, Diskoaren historia erakusketa Zinema tabernan. Sorreratik gaur egunerarte. Garaiko materiala ikusgai.

ORDIZIA:

Urriaren 31ra arte, Rene-Paul Gelos pintorearen erakusketa, Barrenan.

mendi-irteerak

Beasaingo mendizaleak:

Urriak 22, Nafarroa Oinezera.

Urriak 29, Beasain-Urbizu Beasain.

Ordiziako mendizaleak:

Urriak 22, Euskadiko betaranoen martxa.

Urriak 29, XXVIII. betaranoen martxa.

Azaroak 5, Unzillaitz.

KILOMETROAK 2001 BEASAIN



Nafarroa Oinez'00

Andramendi Beasaingo Ikastolak Azpeitira Kilometroak 2000ra joan zirenetan goierritarroi eskerrak eman nahi dizkizue Ikasberri ikastolari emandako laguntzagarritik.

Bide batez San Fermin ikastolari lagundu ahal izateko Zizur Iruñerrian izango den OINEZ'00ra joateko autobusa antolatu du. Txartelak ikastolako bulegoan eskuratu daitezke arratsaldeko 17:00etatik 18:30era ostiralerarte.

Goazen Nafarroan euskara eta ikastolei laguntzera.

Yoga Ordizian eta Lazkaon

Ayoc: Yoga klasikoko elkarteak azarorako erlajazio ikastaroa antolatu du, Ordizian, Barrenan jauregian, asteartetan, 18:30etik 20:00etara eta Lazkaon, Kiroldagian, asteartetan, 10:00etatik 11:30era. Ikastaroa 3.000 pezeta kostatuko da. Izena emateko edo informazio gehiagorako telefonoak: Ordizian, 943889770 (Mari Jose); Lazkaon, 943801427 (Nekane) - 943160934 (Kiroldegia).

GOARDIAKO FARMAZIAK



Astegunetan: Urbizu

(Kale Nagusia, 8 - Beasain). 943 88 02 32.

Urriak 21-22: Cuesta

(Nafarroa etorb. 39 - Beasain). 943 88 05 87.

Urriak 28-29: Atorrasagasti

(Bustuntza auzoa- Ordizia). 943 88 29 34.

RENAULT
AGENTZIA

**LAZKAO
GARAJEA**

Senpere Industrialdea
☎ 943 882442 - 943 888901
Faxa: 943 888901
LAZKAO

**IKASTEK
AKADEMIA**

ikastekakademia@latinmail.com
Joan Iturralde, 5
BEASAIN
☎ 943 160 120

Goierriko akademia integral bakarra hezkuntzako profesionalek zuzendua

Tailerrak

6-14 urte
14-18 urte

- ✓ Ortografia, kaligrafia
- ✓ Irakurmena, idazmena
- ✓ Testu komentaketak
- ✓ Matematika

Eskola laguntza

- ✓ Ikasketa maila guztiak
- ✓ Matematika, fisika, kimika
- ✓ Lengua, euskara, ingelera
- ✓ Marrazketa, latina...
- ✓ Unibertsitate-maila, zikloak

Debaldeko iragarkiak

Bestelakoak

salgai

➔ Sutarako egur lehorra salgai. 2 metro-tan moztuta. 943723504.

➔ Oso gutxi erabilitako pianoa salgai: sakonera 65 zm; zabale-
ra 147 eta altueran 95 zm. 943882467.

➔ Jangelako altzari zaharrak salgai: taila-
tutako 2 komoda eta mahaia 6 aulkirekin. 639779592.

➔ Sua pizteko egurra, txikitua, salgai, zakuetan. Etxetara eramaten da. Bulego ordutegian deitu. 943882695.

➔ 2 sehaska handi, mahaia eta apalak sailgai. Sehaskak handiak dira, mueilezko koltxoidunak. Izarak eta koltxa ere salgai. Guz-
tia 60.000 pezetan. 943888541. 21:30etik aurrera deitu.

➔ Merkantzi garraio-
rako tarjeta salgai. 943180324.

➔ Pigini akordeoia, 42-B, salgai. Erdi mai-
lako ikasketetarako egokia. Jabier. 943465724.

erosi

➔ Kanpin denda han-
dia erosiko nuke. Ber-
din da zaharra izatea. 943723504.

Etxebizitzak

salgai

➔ Etxebizitza salgai Legorretan. Dena ber-
ritua. 943806404.

➔ Etxebizitza salgai Idiazabalen. Berria, 70 m²-koa. Ekipatua. 627869700.

➔ Lazkaon pisua sal-
gai. 90m²-koa. 649035311.

➔ Lazkaon pisua sal-
gai. 80m²-koa eta era-
bat erreformatua. 943881213 -

erosi

➔ Etxe txiki bat ero-
siko nuke Beasain, Or-
dizia edo Donostian. Egoera onean. 616769642.

errentan

➔ Urbasa ondoan etxea alokatzen da as-
teburu edo zubietara-
ko. Handia eta guztiz hornitua. 948539381.

➔ Pisua hartuko ge-
nuke alokairuan Goie-
rrin. 943-187704 (Ana) edo 646-233429 (Oihana). 600432352.

Animaliak

opari

➔ Katakume siame-
sak oparitzen dira. 943885349 (Dolox).

➔ 10 hilabete dituen pastor aleman arraza-
ko txakurra oparitzen dut. Josune. 943806048.

salgai

➔ Cocker eta boxer arrazako txakurkume-
ak salgai daude. Pede-
greearekin. 696057346.

KAMIXETA ESTANPAZIOA
FOTOKOPIAK KOLORETAN
San Inazio, 5 ☎ 943 88 35 81
BEASAIN

Autowag, s.a. Audi Volkswagen
☎ 943 888 254 943 888 266 Faxe: 943 888 105
N-1 errepidea, 419 Km **BEASAIN**

IDIAZABALEN APARTAMENTU ETA ETXEBIZITZAK
ADARRAKO AUZO ZORAGARRIAN

• 1 eta 2 logelakoak.
• Kalitate goreneko materialak. Adarra kalitatea.
• Garajeak igogailu zerbitzuarekin.
1,4 milioitik aurrera.
• Irakaskuntza zentrua, Polikiroldegia, ...
inguruan.

6 azkenak

686 414 901 - 943 450 721

INMOBILIARIA adarra
ZURE NEURRIRA ERAIKITZEN DUEN INMOBILIARIA
LA INMOBILIARIA QUE CONSTRUYE A SU MEDIDA

Ibilgailuak

salgai

➔ Peugeot 205 ko-txea salgai. SS-X. Beti garagean egondakoa. 943888795.

➔ Seat Malaga 1.500 salgai. Igogailu elektrikoa, itxitura zentralizatua, aluminiozko llantak. Prezio interesgarria. 655740571.

➔ Renault 9 TS autoa salgai. 80.000 km. Beti garajea edukitakoa. 100.000 pezeta inguru. 943027075.

➔ Seat Ibiza TD salgai. SS-AT matrikuladuna. 686261210.

➔ Cady motoa salgai. Beltza. 25.000 pezeta. 943162510.

➔ Ford Scort 1.600 salgai. Diesela. Prezio oso interesgarria. Patxi. 655740571.

➔ Rieju First ziklomotorra salgai. 50 cc-koa. 20:00etatik aurrera deitu. 943884423.

Lana

eskaerak

➔ Neska euskalduna behar da tabernan zerbitzari lanak egiteko. 679579621.

➔ Mutil bat behar da igeltseritza lanerako. 943889576.

➔ Ileapaintzaile bat behar da, Arrasate inguruan. Esperientziaduna. Epe luzerako lana. Lan orduetan 943792259. Gauetan, 943770056.

➔ Seguran pertsona bat behar da igande arratsaldeetan tabernan lan egiteko. 943800251.

➔ Sukaldari bat behar da asteburuetarako. 943886243.

eskaintzak

➔ Neska euskalduna eskaintzen da goizez etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko. 659964794.



Langai

Euskal Lan Zerbitzua
Eusko Jaurlaritza

BILTEGIZAINA

Goierri. Erref.: 39298/2

TXARKITERA

Donostia. Erref.: 37877/5

PINTURA ENKARGATUA

Olaztin. Erref.: 37152/3

2 OFFSET INPRESORAKO

2. OFIZIALEAK

Donostia. Erref.: 39422/1

VISUAL C ++ IRAKASLEA

Donostia. Erref.: 39761/1

Lan eskaintzaren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.
Goierriko Herrien Ekintza
943 884 401



Silvia Miras Casasayas

Odontologoa. 649 koleg.

**Implantologia
Estetikazko odontologia
Haur odontologia
Helduen odontologia**

San Ignazio, 8 B - 2. ezk.

© 943 88 92 87

BEASAIN

Lili
loradenda

Ezteiak, zentroak, koroak,
lore lehorrak, balkoiak....

Zaldizurreta 3 behe, Beasain 943 888149

LOINATZ

Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak

☎ 943 88 20 07

Nagusia, 27

BEASAIN



PSIKOLOGI KLINIKOA



Helduen,
umeen, bikoteen
eta sexologi
tratamenduak

Jose Ramon Pato Prieto

Psikologian lizentziatua

Elkargokide zenbaki: E-2644

RPS: 42095

AURRE ZITA

☎ 943 887 221

☎ 610 020 041

JM Arana, 1 - 2. esk. esk.

BEASAIN

VOLVO

TOYOTA



ŠKODA

Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

**Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea**

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a

☎ 943 88 17 00 - 943 88 17 04

BEASAIN



Legazpi kalea, 3

ORDIZIA

● Pintxo hotz
eta beroak

● Ogitaratekoak

Emilio Sanchez eta Ekain Arruabarrrena: Sydneyko joko paraolimpiarren gazi-gozoa

Bi txirrindulari lazkaotar ziren Syneko joko paraolimpiarretan parte hartzekoak. Bat, Emilio Sanchez, bertan da. Egun hauetan pistako probetan parte hartuko du eta 27an errepidekoan. Bestea, Ekain Arruabarrena, joateko prest izan arren, bere ametsa bete gabe geratu da. Emiliori egin diogu ondorengo elkarrizketa.

- Dominarik ekartzeko itxaropez al zoaz Sydneyra?

- Oso maila handia dago. Profesionaletan ibilitako jendea ere badago, istripuren bat izan dutenak. Olinpiar jokoak kirolean handiena dira, eta iristeak asetzen nau. Behin bertan egonez gero ahaleginak egin eta dudak guztia emango dut baina 3 domina bakarrik daude.

Errepideko lasterketa 80 kilometro ingurukoa izaten da. Eta esprintean iritsiz gero haundia eta indartsua izan behar da. Baina beste guztiek ere pedalak eman beharko dituzte.

- Ze probatan parte hartuko duzu?

- Errepideaz gain, pistak parte hartzera behartu naute, baina ez daukat zer eginik. Hor belgiarrek-eta askoz ere hobeak dira. Errepideko lasterketa ere entzun dudanez oso leuna da, eta niri aldapak egotea eta ibilbide gogorra izatea komeni zait. Baina ahal dudana egingo dut.

Pistan hainbat proba dira: kilometroa geldirik irtenda, 200 metro lantzatuta eta 4 kilometro jazarpen proban. Erlojuaren aurkako proban ere parte hartzeko nintzen baina kendu egin dute. Pistan entrenatzeko Anoetan ibili naiz azken 2-3 hilabeteetan, astean egun pare batez, erritmoa hartzeko. Sydneyra joan eta erridikulorik ere ez dut egin nahi.

- Zer suposatzen dute zuretzat paraolimpiar jokuek?

- Dena. Egindako ahalegina ezin da hitz batzuetan adierazi. Neguko denboraldian gimnasioan eta igerilekuan aritzen naiz. Udaberrian txirrinduan hasten naiz, eta profesionala ez naizenez, lanetik atera eta gauzez industrialdean biraka entrenatzen dut. Kilometro gehiago behar baditut, goizeko 5etan jaiki eta etxeko sotoan rodilloan ibiltzen naiz. Lehiatu nahi baduzu entrenatu beharra dago, ez dago beste sekreturik. Ordiziko kiroldegian Ramon Elkorok prestatzen dizkit entrenamenduak.

- Zein minusbaliotasun duzu?

- Aldaka edo kaderako arazoa dut. Jaio berritan praktikan batek injekzioa jartzeko garaian nerbio ziatikoa zulatu zidan. Harrezkero aldakako desgastea dut eta egunen batean protesisa jarri beharko didate. Geroztik eta desgaste handiago dudanez hanka bat geroztik eta gehiago sartzen da aldakan, horrek sortzen dituen bizkar hezur-reko arazoekin.

4 maila daude baina Sydneyn 3k parte hartuko dute. Nire mailan, F1 du izena, bi hankak osorik baina diskpazitateren bat izan edo eskuaren bat eskumuturretik gora moztuta dutenak sartzen dira. F2an bi esku moztuta dituztenak edo hanka bat belauenez beheara moztuta dute.



Emilio 96. urtean hasi zen lehiaketetan. 3 urtean Espainiako txapelkun izan da errepidean eta 2. erlojuaren aurka. Aurten alderantziz egin du: erlojuaren aurkakoa irabazi eta 2. errepidean. Iaz Europako kopan errepideko lasterketan 4. geratu zen eta 5. erlojuaren aurka. Europako txapelketan 9. eta 11. postuak lortu zituen.

nak sartzen dira. F3an hanka bat belauetik gora moztuta dutenak parte hartzen dute, hauek pedal bakararekin egiten dute indarra.

- Urtean zehar ezinduek izaten al duzue lasterketatik?

- Oso gutxi ditugu. Baina, nik, zorionez, Gipuzkoako txirrindularitza federazioaren baimena dut jubenilen lasterketetan parte hartzeko. Egiten dituzten kilometro kopurua gure lasterketetakoren antzekoa da. Gazteak dira eta txispa handia dute, eta ondo datorrit lehiaketako erritmoa hartzeko.

- Zer aurkitzea espero duzu Sydneyn?

- Lehenik eta behin lagun onak. Euskal etxeko helbidea ere badaramat eta bertara Euskateleko mailota daramat. Natura aldetik ere leku ederrak ikustea espero dut.

Lasterketari dagokionez, aurkaririk gogorrenak europarrak dira, batez ere frantziarrak. Errepideko lasterketan beste herrialdeetatik 3

partaide izango dira eta ni, berriz, bakarrik noa. Hori desabantail handia da, ihesaldi guztiei erantzutea ezinezkoa baita.

- Ezberdintasunak daude beraz.

- Beste herrialdeetan laguntza gehiago dago. Adibidez, Europako txapelketa aurretik frantziarrak 2 astez egon ziren kontzentratuta. Asturiar bat nire etxera etorri zen, eta ni lanetik atera ondoren kotoxea hartu eta Europako txapelketara joan ginen. Dena dela aurten ez dut inongo kezarik, Euskateleko errepideko eta pistako txirrinduak eta behar dudak guztia jarri dit.

- Zer iruditzen zaizu Ekainekin gertatu dena?

- Hori ez dago egiterik. Espainiako txapelketa jokatu zenean esan bazioten, atsekabetuko zen, baina, hama-bost egunen faltan dena, prest duenean, ezin zaio mutilari hori egin. Niretzat ere ez da oso ona izan. Nire emaztea Ekainen ama eta anaiarekin joatekoa zen. He-

gazkina eta lo egiteko lekua hartuta zituzten, eta orain hemen geratu behar.

Nik 96an espainiako txapelketa irabazi nuen eta ez nintzen Atlantara joan. Zergatik? Oraindik ere ez dakit. 97an oporrak irailean hartze-ko esan zidaten Txekiara txapelketa batzuetara joateko. Familia abuztuan oporrik gabe utzi nuen eta bi egun aurretik ez gindoazela esan ziguten. Hitz egiten baduzu gaiztoa zara eta isiltzen bazara, berriz, inozoa. Adibidez Eusko Jaurlaritzak 36 milioi eman dizkie 25 olinpikoei. Hori oso ondo dago. Baina, nik deitu nuen guretzat zein laguntza dagoen jakiteko eta paraolimpiarrentzat ezer ere ez dago. Nik lan egiten dut eta ez dut diru behar handirik. Baina egun hauetan ikusi ditut hainbat ezindu, haiek ez dute lan egiten eta askotan beraien gurasoek ez dute dirurik. Horiei lagundu beharra dago. Baina, gu Sydneytik itzulitakoan, gai hau beste 4 urtetan ahaztuta geratzen da.

- Hau dena ikusita merezi al du esfortzuak?

- Nik kirola gustatzen zaidalakoa parte hartzen dut lehiaketetan. Denak ez dira eragozpenak, inguruan lagundu eta animatzen nauen jende asko dut. Adibidez, Ataungo Santi Osoro, niri berak sartu zidan txirrinduan lehiatzeko harra. Lehiaketa dudan bakoitzean ahal badu nirekin joaten da. Euskatel Euskadik, Kirolgi Fundazioak eta Lazkaoko Udalak ere ahal duen mailan lagundu didate. Ordiziako Marotias, Ramon Elgoro, nire sendia eta inguruko lagunak laguntza ere ez dago diruarekin ordaintzerik. Sydneyra iristeak lan asko eskatzen du. Zenbait jende hortaz konturatzen da eta laguntzen dizute, hori barruraino iristen da. Herriko jendeak ere asko animatzen nau.

Ekain lur jota

Ekain Arruabarrena, bere ametsa bete gabe utzi dute azken unean. Bere ama Mila Aldasorok hitz gogorrak izan ditu kirol arduradunentzat.

- Zergatik geratu da Ekain Sydneyra joan gabe?

- Garbi dago, azpijokuren bat egon dela. Federazioak izan duen jarrerarekin susmoren bat eduki beharrean gaude. Beraiek Komite Olinpiarra eta Kirol Kontseilu Gorenaren akatsa izan dela diote. Akatsa izan bada saiatu konpontzen, baina, ez dute irtenbide bat aurkitzeko inongo saiorekin egin. Ez digute erantzun bat ere eman. Koloradoko Munduko Txapelketan egon zirenean, Ekain errepi-deko proban 4 minutu t'erdia beranduago ateraz zen dortsala jostorraz eta hariarekin josten ari zitzaizkielako. Horrez gain, ez zituzten batere ondo zaindu. Arduradunak oporretara joan ziren bertara eta kirolariek ordaindu zuten hori. Itzuleran hori salatu egin zuten eta horregatik orain mendekua hartu dutela iruditzen zaigu. Orduan Dordokan zegoen, hau Aspaceko kirol taldea da. Han kirolaria indenfeso utzi eta entrenatzaileari aurpegia atera ziotela ikusita, Euskatel-Euskadira pasatu zen eta hori ez diote barkatu. Bera Euskadiko bazkidea da eta bere ilusioa zen talde horretan egotea.

- Baina, hasera batean joatekoa zen.

- Guri eskutitza Kultura eta Kirol Ministeritzatik iritsi zitzaigun Ekain Sydneyn izango zela eta zorianak emanez. Komite Paraolimpiarrak ematen ditu Jokoetako plazak, 16 ziren guztira txirrinduan. 12 ONCEkoentzat dira, 4 geratzen dira. 2 ezindu fisiko doaz eta paralitiko zerebral bakarra. Eta ez dute esaten nor doan plaza huts horretan. Beraiek diote kirolaririk ez doala, nor doa orduan?

Espainiako Paralitiko Zerebralaren Federazioako lehendakaria Ixiar Usabiaga, Donostiako Aspaceko lehendakaria da. Berak horrelako pertsonekin lan egiten du. Nola hartu dezake jarrera hau? Jabier Yanci selekzionatzailea Lesakako mutil gazte bat da. Ardura bata besteari pasatzen diote. Eskutitza uztailan iritsi zen. Irailean txirrindu bat edo bi bidali behar genituen jakiteko Jabier Yanciri deitu genionean, orduan jakin zuen Ekainek Sydneyra joateko karta zuela. Berak ez zuen eramateko inongo asmorik. Dei hori egin izan ez banu noiz jakingo genuen ez zela joango?

Lau maila daude PC1, PC2, PC3 eta PC4. Lehen biak trizikloan ibiltzen dira. PC1 ez da



paraolimpiarretan sartzen. Maila bakoitzetik txapelduna joan beharko litzateke. Orain dela 4 urte hala joan ziren. Jartzen duten aitzakia plaza bakarra dagoela da, orduan PC4ko txapelduna doa, horrek oso ezintasun txikia du. Bi plaza bazeuden Ekain joango zen (PC2ko txapelduna).

Hauei plazak kendu dizkie beste norbait joateko. Federazioa, Komite Olinpikoa eta ministeritza oso ondo eramaten dira eta batak besteari ez die harririk botatzen. ONCE-k ere indar handia du, diru asko jartzen dutenez beraien kirolari gehiago joaten dira beste kategorietakoak baino.

- Nola hartu du Ekainek dena?

- Eramateko asmorik ez badute aurretik esan behar zuten, orduan kolpea hartuko genuen baino kito. Ezin dena da, hainbeste entrenamendu egin eta dena prest genuenean ezezkoea esatea. Uztailaren 28-29an jaso genuen eskutitza eta irailaren 15ean jakin genuen ez zihoala, eta kasualitatez gainera. Euskaltel erotuta ibili da arazoa konpondu nahian eta ez da ezer lortu.

Tristeena kirolaria bost ajola zaiela da. Kirolari bezala lur jota utzi dute Ekain. Berria eman ziotenean oso gaizki egon zen, lasaigarriak hartu beharra izan zuen. 24 urterekin zuen ilusioa erabat kendu zioten. Federazioak antolatzen dituen lasterketetara ez da gehiago joango. Txirrinduan ibili, disfrutatu eta federazioarekin ahaztu. Adibidez, irailean Santi Osorok animatuta Donostia-Goizueta proba zikloturistan parte hartu zuen. Horrelakoetan parte hartzen jarraituko du, ez du txirrindua utziko.



1981. urtean jaiotako legorretarrak

1990eko ekainaren 10ean egin zuten jaunartzea 1981ean jaiotako legorretarrek eta ordukoa da argazkia.

Goiko ilaran, ezkerretik eskubira: Marcos Cubo, Daniel Cardoso, Nicolas Pazos, Iñaki Rodriguez, Ane Garin, Sheila Lestayo, Izaro Jauregi, Garbiñe Iturrioz, Rebeca Vallés, Haritz Kerejeta eta Ganix Zunzunegi.


Beheko ilaran: Ainara Zunzunegi, Daniel Castilla, Josune Amondarain, Agurtzane Allur, Manex Aménabarro, Nerea Goia, Sonia Caro, Jonathan Cambero eta Iñigo Jauregi.

Olagi Sagardotegia



Orain eguerdietan ere zabalik
Urte guztian sagardotegiko menua eta karta
☎ 943 88 77 26 **ALTZAGA**

Iues rothers



BEASAIN

GESTORIA BIOK

ASEGUROAK

- * Aholkularitza laborala eta fiskala
- * Jubilazio, bizitza, etxebizitza eta kotxe aseguruak

☎ 943 88 44 00 - 943 88 12 58
Goierri, 12 **ORDIZIA**

GENERALI Aseguroak



IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
☎ 943 88 87 02
BEASAIN

YOSUTHERMIK

LEIHO ISOLATZAILEAK

- PVC leihoak
- Aluminiozko hausdura termikodun leihoak
- Aroztegi mistoko leihoak
- Poliuretanozko leihoak

Erakusketa
Ipiñarrieta, 3
☎ 943 725 232 **URRETUXU**

Fabrikatik zuzenean
Kataide industrialdea, 4 pab.
☎ 943 770 157 **ARRASATE**

iBAi ONDO



AROTEGIA

instalazio berriak

Altzariak neurritan
Mota guztietako aroztegi lanak
PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa

Logela, egongela eta sukaldeko altzari nahiz osagarrietan aukera paregabea

☎ 943 16 40 40 faxa: 943 16 47 47
Poltsikoko telefonoa: 639 631 640
Antzizar-Katea, 5 BEASAIN



Igaratz



Ileapaindegia
Estetika
Solariunak
Masaia

Ireki berria

Nafarroa Etorbidea, 6
943 883 180 BEASAIN



IDIAZABALEN ETXE ADOSATUAK



- 3 logela.
- Lorategia 66/99 m².
- Kalitate goreneko materialak.
Adarra kalitatea.
- 2 kotxerentzat garaje itxia.
- Solarium, terraza.
- Irakaskuntza zentrua,
Polikiroldegia,...
inguruan.

ETXEEN ENTREGA DATA: 2001. urteko 4. hiruhilekoan

686 414 901 - 943 450 721



INMOBILIARIA

adarra

ZURE NEURRIRA ERAIKITZEN DUEN INMOBILIARIA
LA INMOBILIARIA QUE CONSTRUYE A SU MEDIDA

Badakizu
lo egiten...

eta **amesten?**

**23.000pta.tik
285.000pta.rainoko
aurrezpena**

Oheak eta
osagaiak
Zorro nordikoak
Burukoak
Izarak
Koltxoi-estalkiak
Alfonbrak
Kutxinak
Gortinak
Besaulki mantak
Luma edo fibrazko
nordikoak



**Zuretzako prestatu dugun udazkenerako
eskeintza berezia**

SWISSFLEX®

-%20*

...eta egizu lo lasai



SF 175

Lo egin eta esertzeko modu
atsegin bat. Bi motorek
erregulatzen dituzte bizkar,
eta hankak.



SF 135

Oinarrizko modelo bat.
Oheburua erregulatu
daiteke



SF 575

Modu ezin-hobe batean lo
egin eta esertzeko. Bi motore
ditu bizkar eta hankak
erregulatzeko.



SF 535

Atsedean hartzeko modu
eroso bat. Eskuz erregulatu
dira bizkar, buru eta hanken
kokapena eta altuera.